

GEZURRARI GORAZARRE



BOOKTEGI

AMAIA
IRIONDO
ARISTONDO



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eu

AMAIA IRIONDO ARISTONDO

gezurrari gorazarre

AURKIBIDEA

ILUNTASUNAREN ARGIA

KANTUKA

LOREA

KARIBE ETXEA

REMEDIOS

GERANIOAK

OROIMENeko HERRIA

ILUNTASUNAREN ARGIA

Maite ditut(...)

Behin baino gehiagotan egia esaten ez dutenak.

Jakinaren gainean legeak apurtzen dituztenak.(...)

Gorrotatzen ditut(...)

Gezur ederrak badaudela inoiz jakingo ez dutenak.

Eta mundu honetan bizi diren errugabeak oro

Luigi Anselmi

Etxeko atea zabaldu nuen, egunean hogei bat aldiz zabaldu eta itxi egiten dena. Akaso, gehiagotan. Beno, egia esan, ez dut hori inoiz zenbatu. Eta, gainera, ez dauka garrantzirik. Garrantzizkoa da, gehienetan, nik zabaltzen dudala atea, eta besteek itxi egiten dutela. Nik barrutik zabaltzen dut, beti egoten naizelako etxean. Besteek ixten dute, kanpora joaten direlako, badaukatelako nora joan. Nik, ordea, badaukat non egon.

Etxeko atea zabaldu nuen, beti bezala, aparteko ezer espero gabe. Nire ahizpa lanetik etortzeko ordua zen, eta hura espero nuen. Betiko orduan, betiko pertsona. Horrelakoa zen gure —edo zehatzago esanda, nire—bizimodua. Etxekoon ordutegiak eta joan beharrak ondo baino hobeto ezagutzen nituen, bakoitzaren urratsen erritmoa eta zapaltzeko modua. Berbarik egin gabe ere, mugitzen ziren moduagatik asma nezakeen zein zen haien unean uneko aldartea.

Etxeko atea zabaldu nuen, eta ordura arte ikusi gabeko irribarre zabal batek goitik behera astindu, aztoratu ninduen. Erdi lotsatuta sartu zen gure etxean. Ez zuen ezer esan, hasieran. Nire ahizparen atzetik, nire ahizparen eskutik, zihoan korridorean barrena. Biak eskutik helduta. Nik, haien atzetik, barrutik, etxeko atea itxi nuen. Egongelan gelditu ziren une labur batez, ni iritsi arte. Orduan, Ziortzak esan zidan “hau Xabi da”, eta Xabiri esan zion “hau nire ahizpa da, Miren”. Ziortza bere gelara abiatu zen. Xabi eta biok aurrez aurre gelditu ginen, zer esan asmatu ezinik. “Afarria dugu Xabiren lagun batzuen etxean, eta berandu helduko naiz” esan zuen gelatik Ziortzak ahotsa dezente goratuz. Xabik, bitartean, irribarre zoragarri hari eusten zion. Ziortza inoiz baino ederrago azaldu zen eta, orduan ere, eskutik heldu zion Xabiri. “Agur, Mirentxo” esan zidan Ziortzak. Ateraino lagundu nien. “Hurrengo batera arte” esan zidan Xabik. Horiek izan ziren luzatu zizkidan lehenengo hitzak. Atea ireki nien, eta haiek, kanpotik, itxi egin zuten. Etxean gelditu nintzen. Bakarrik. Argia itzali nuen, eta telebista piztu. Nire ohiko iluntasunera itzuli nintzen. Saio gogaikarri bat ikusi nuen. Ez nuen beste ezer egiteko gogorik. Horrela gelditu nintzen afaltzeko ordura arte. Gurasoak kaletik heldu arte.

Amak arte-galeria bat zeukan, ezkondu baino lehen jarritakoa, gure hirian izena lortu zuena. Amak edertasunarekin egiten zuen lan: edertasuna saldu eta erosi. Edertasunera ohituta zegoen. Artea, letra larriz idazten zen artea, zen bere mundua. Bera ere ederra zen, horrelako lan baterako propio jaiotakoa, nahiz eta, orain, azalean denborak arrasto gupidagabea zizelatu zion. Ederra eta azkarra zen, jendetasunaren jabe, atsegina, interesgarria, dotorea... Nirekin zerikusirik ez zuena.

Ni, berarengandik jaiotako hori, itsusitasunaren gauzatzea nintzen. Itsusitasunaren zigorra neraman. Oraindik, biziki gogoratzen ditut eskola-sasoian jasan nituen burlak, aurpegira botatzen zizkidaten irainak, jolastorduetako bakardadea, lagunik gabeko nerabearoa, adiskidetasunaren berotasuna ezagutu gabeko hazkuntza, amaren tristura, ahizparen lotsa, eta nire betiko etsipen garratza. Nire ikasgelako neskak lerdentzen eta edertzen hasi zirenean, nire zangoak gero eta trauskilago bihurtzen ari ziren, motz eta izugarri sendo. Jesarleku arruntetan jartzea arazoa zen niretzat, eta lortzen banuen, hankak eskegita gelditzen zitzaizkidan, lau edo bost urteko umeen antzera. Burua izan zen hazi zitzaidan bakarra, baina hura ere neurritik kanpo, handiegia nire gorputz desorekatuarentzat. Eskolatik etxera eta etxetik eskolara nindoanean, jendeak buruari buelta ematen zion ni pasatu ostean; batzuetan “ze pena” eta horrelako adierazpen mingarriak entzuten nituen. Bakarrik egiten nituen egin beharreko kale-osterak, ez nuen nahi ahizparentzat zama izan, ez nion estutasunik sortu nahi, ez berari ezta beste inori ere. Horrek guztiak indartsu egin ninduen, baina aldi berean barnerakoi eta bakarti. Asteburuetan, ikasten eta ikasten ematen nuen denbora. Nire neurri gabeko buruari etekina ateratzen ahalegintzen nintzen, eta azterketen emaitzetatik hasi nintzen poztasuna zer izan daitekeen antzematen. Horregatik, hasi nintzen gero eta gutxiagotan kalera irteten; izan ere, ez neukan nora joan, ezta norekin ibili ere.

Zorioneko batxilergoa bukatu nuenean, gurasoei esan nien ez nuela unibertsitateara joateko kemenik. Ezin niola jende ezezagun pilo bati aurre egin, ezin nuela erruki-irribarre gehiago sufritu. Amak, kosta lain kosta konbentzitu nahi ninduen; ahal zuen guztietan, asko balio nuela esaten zidan, adimen izugarria nuela, ikasteko erraztasun hori aprobetxatu egin behar nuela, unibertsitatean nire lekua aurkituko nuela, agian lagunak ere egingo nituela. Aitari, baina, aurpegiera iluntzen zitzaion. Hitzik ez zitzaion irteten, eta, eskutik heltzen zidan ezer esan gabe, xamur eta estu.

UNEDen Filosofia ikasteko matrikulatu nintzen. Etxean ikasiko nuen; liburuak erosi, eta etxetik ikasi; bakarrik eta lasai. Azterketa-egunetan baino ez nuen joan beharko. Etxetik irten gabe bizi nahi nuen, nire gotorlekuan, ezberdina izatea inork uste baino zamatsuagoa baita.

Hasieran, nire erabakia tristuraz hartu zuten familiakoek. Animatu nahi ninduten, aurrera egiten lagundu nahi zidaten. Kosta zitzaien nire etsipena, nire amore emate hori onartzea, baina hamazortzi urterako bihotza ubelduraz eta orbainez josia nuen, gaizki josia, gainera; eta gutxi behar izaten nuen zauriak zabaldu eta odoletan hasteko.

Ziortzak kontatzen zizkidan bere eguneroko joan-etorriak, bere arazoak eta pozak, lagunekin izaten zituen eztabaidak eta, beranduago, parranda-gauetako gorabeherak. Gazte-sasoirik ezagutu ez nuen arren, Ziortzaren gaztaroa bizi izan nuen urratsez urrats, bertatik bertara, neurea bailitzan. Maitasunaren nolakotasuna eta indarra, ahizparen eskarmentuetatik ezagutu eta bizi izan nituen, Ziortzaren mutil-lagunak —neurri batean, noski— nire maitasun-istorioak ere baziren. Nire ahizpa maitemintzen zen bakoitzean, mutil batekiko lilura adierazten zidanetan, ni ere txundituta gelditzen nintzen, Ziortza baitzen benetako munduarekin nuen lotura bakarra, eta Ziortzaren bizipenetatik ikusten nuen etxetik kanpoko guztia.

Ziortza amaren modukoa zen: ederra eta azkarra. Ez zitzaion, baina, ikastea asko gustatzen, eta tirriki-barraka amaitu zituen batxilergoko ikasketak. Gurasoek nahi izan zuten hura unibertsitatean ahalegintzea, baina alferrikakoa izan zen. Arropa-denda bat jarri zuen gurasoen laguntzaz, eta bertan arropa ausartak eta berritzaileak saltzen zituen. Gustatzen zitzaidan goizetan nire ahizpa ikustea, txarolezko botak eta minigonak jantzita. Atsegin nituen haren distira eta edertasuna. Ziortza maite nuen, bekaizkeriarik gabe, benetan eta zintzo; hura baitzen nire bizitzaren parterik alaiena.

Etxeko atea zabaldu, eta Xabi ikusi nuenetik, haren irribarrea ezin nuen burutik uxatu. Orduak ematen nituen ametsetan: inoiz gauzatuko ez ziren elkarrizketak asmatzen, hartaz eta hortaz hitz egiten, berarekin eskutik helduta paseatzen, bazkaldu ostean kafe bat hartzen, hau da, bikoteek edozein egunetan egiten zutena egiten. Ziortzak Xabiren inguruan kontatzen zizkidan txutxu-mutxuei protagonistetako bat aldatzen nien, eta ni neu jartzen nintzen nire ahizparen orde. Betiere, ni itxurosoago bat: luzatu egiten nintzen, liraindu, orekatu, edertu, normaldu. Nik ez nion inoiz aitortu Ziortzari zer burutazio nerabilen, nora joaten zitzazkidan pentsamenduak, nola lortzen nuen zorientasunaren izpi makal batzuk antzematea, nola egiten nion ihes nire errealitate zurrun eta ilunari. Ez nuen uste hori jakiteak on egingo zionik.

Iluntze askotan, ia-ia egunero, atea zabaltzen nien. Ziortza aldatu bitartean, nire ametsetan bezala, Xabirekin mintzatzen nintzen. Edozein gai zen egoki gure elkarrizketen hizpide izateko, barre ere egiten genuen, gero eta gehiagotan. Ahizpak, askotan, ez zuen presarik hartzen, eta gure solasaldiak luzatu egiten ziren. Xabi mutil argia zen, iritzi sendokoa, kritikoa, jantzia, eta aldi berean apala. Nire ametsik ederrenean ere ezin izango nukeen irudikatu horrelako pertsona bat nire etxeko egongelan nirekin egon zitekeenik. Xabi ere gustura egoten zela esango nuke. Behin, “zurekin hizketan aritzea gustua da” esan zidan. Beste behin, nire umore garratza bat zetorrela berearekin, brausta, bota zidan. Nire ahizpa, gure logelatik komunerako bidean, begira gelditzen zitzaigun. Uste dut gu berriketa bizian ikusteak pozten zuela.

Ziortzaren urtebetetze egunean, Xabi bazkaltzera etorri zen. Lore sorta zoragarri ederra eta ikaragarri handia ekarri zion nire ahizpari. Xabik, orduan, ni ere han nengoela konturatuta, lore sortatik arrosa zuri bat atera zuen kontu handiz eta nire esku dardaratian pausatu zidan “hau

zuretzat, Miren; ezagutzen dudan emakumerik azkarrenarentzat". Gorritu egin nintzen. Lotsatu. Eta, une horretatik, betiko maitemindu. Ez Ziortzaren bitartez, berak esaten zizkidan kontuekin, nire bizipen propioekin baizik.

Xabi gutako bat bihurtu zen epe laburrean. Ohikoa zen bera bazkaltzen edo afaltzen geratzea, Ziortzaren bila etortzea, bere zain gelditzea. Bitartean, Xabi nirekin egoten zen, nirekin berbetan, nigandik gero eta hurbilago, gero eta ezagunago. Pasadizo asko kontatzen zizkidan, Ziortzak berak ezagutzen ez zituenak. Nire etengabeko ikasketez galdetzen zidan, irakurtzen nituen liburuez, entzuten nuen musikaz, jaisten nituen filmez... Nik Ziortzaren eta, bereziki, Xabiren zain ematen nuen egun osoa, berarekin hitz egiteko, bere ondoan egoteko. Baina halako arratsalde batean, ni bezalako emakumerik ez zuela inoiz ezagutu, ezta ezagutuko ere esan zidan. Bat-batean nire gorputz aldrebesaren gainean sentitu nuen bere begiradaren pisua. Nik txarto hartu nuen, oso txarto. Amets gozoetatik errealitate ilun eta gupidagabera bueltatu nintzen. Aspaldiko irainak eta lotsak burura etorri zitzaizkidan kolpera. Xabi besteen moduko ikusi nuen. Ez nuen pentsatu ere egin nahi gure adiskidetasunaren oinarria errukia izan zitekeenik, nahiz eta arrazoia eman behar izan nion. Ni bezalako emakume gutxi zegoen, nire akats genetikoa zuen emakume gutxi zegoen. Egia biribila. Arrazoia eman nion. Xabiri begietara begiratu nion, zuzen eta latz. Une horretan, ezin izan nuen bere pentsamendua irakurri. Amorruek itsutu ninduen, eta nire logelara ezkutatu nintzen, nire barruko orbanetatik zerion odolaren bor-bor mingarriaren kiratsa bakarrik niretzat gorde nahian.

Hurrengo egunean, gaixotuta sentitzen nintzen, ondoezik. Gurasoak eta Ziortza lanera joan ziren, kezkatuta. Ohean geratu nintzen. Telefonoak, telefono madarikatuak, eten zuen nire lasaitasuna. Xabi zen. Nirekin hitz egin nahi zuen. Ziortza eta gurasoak lanean zirela aprobetxatu nahi zuela, nirekin gaizki ulertze negargarri hura argitu behar zuela, ez zuela lorik egin, hanka-sartze hori barkatu behar niola, ezin niola berari egotzi urteetan pilatutako irain guztien karga, ez zela bidezkoa. Hitz egin behar genuela. Etxera etorriko zitzaidala. Ordu erdian, bertan egongo zela.

Etxeko atea ireki nion. Egongelan eseri ginen, bata bestearen aurrean. Ni bezalako emakumea ez zuela inoiz ezagutu esatean, ez ninduela mindu nahi esan zidan. Azkarra eta argia nintzela, jakin-min handikoa, interesgarria... Malkoak bere hitzen dantzara irristatzen zitzaizkidan aurpegian behera. Xabik eskuetatik heldu zidan. Negar-arpulu biribil handiak erortzen zitzaizkidan begietatik. Ezin nituen geldiarazi. Eskuekin lehortu nahi izan nuen nire aurpegi gorritua; baina, ezin. Nire esku txiki eta potoloak bere esku luzeen artean gorde zituen, malko pozoitu eta garratzetatik babestu nahiko balitu bezala. Gero, astiro-astiro eskuak musukatu zizkidan eta nire burua bere gorputzaren kontra estutu zuen. Negarrez jarraitzen nuen. Gertutik begiratu ninduen, begietara. Nik ere begiratu nuen. Nire malko tematiak nire ahoaren hegalaria iritsi ziren, eta, orduan, Xabik xurgatu egin zituen banan-banan nire ahora iristear zeuden guztiak. Gure ahoak elkartu egin ziren. Gure eskuak askatu, bestearen gorputzean endredatu

ziren. Gure arnasak erritmo berean estutu ziren. Nire ametsetan bezalaxe sentitzen hasi nintzen: arin eta lirain, aske eta distiratsu.

Gertatu behar ez zena gertatu zen, baina gertatu zen. Ez ginen damutu — ni ez, behintzat —. Jazotakoa isilpean gordeko genuela adostu genuen. Gezur eder batek babestuko gintuen. Ez genion ez Ziortzari ez beste inori ezer kontatuko. Gainera, jakin bagenekien inork ez zuela horrelakorik sinetsiko. Nork nahiko luke ni bezalako batekin oheratu? Imajinatze hutsa ere, surrealista samarra izan zitekeen edonorentzat. Etxeko atea itxi baino lehen, muxu luze eta hezea eman nion. Horrela eman nizkion eskerrak. Berak ezagutu gineneko irribarre berberarekin erantzun zidan.

Ez zitzaigun damutu, ez. Ez orduan ezta hurrengoetan ere. Erraza zen elkartzea eta elkarrekin egotea. Xabik telefonoz deitzen zidan, prest nengokeen galdetu, eta ordu erdira etxeko atea zabaltzen nion. Nik hartzen nuen eskutik, nire eskutik abiatzen zen etxeko korridorean barrena, nire bila zetorren, nirekin egoteko.

Poliki hasten ginen, elkarri begiratzeko astia hartzen genuen, eskuekin jolasten ginen, muxuekin bestearen arnasaz elikatzen ginen, joko berriekin ausartzen ginen, plazer-iturri berriak probatzen genituen — debekatuak ere bai —. Guretzat ez zegoen langarik, gure gorputzek ez zuten sentitzen mugarik, malgu eta eroso geunden elkarrekin, urteetako maitaleak bagina bezala.

Gure “zitak” bakandu egin ziren, apur bat; batez ere, Xabik eta Ziortzak ezkontzeko erabakia hartu zutenean. Xabik, berria besteei zabaldu baino lehen, esana zidan ezkontzarena. Bagenekien horixe zela gertatuko zena, gureak ez zuela Xabi eta Ziortzarena oztopatuko. Gurea biontzat zegoen argi, baina ilunpean bizitzeko jaioa zen: ilunpeko maitasuna izateko. Horregatik, bihotzez zoriondu nuen Xabi. Ziortza aukera ezin hobea zelako. Nire ahizpa maitea baino hoberik ez zuelako inon aurkituko.

Ziortza pozarren zegoen. Alaitasunak ez zuen nahikoa lekuri bere baitan, eta ahotik irribarretan ateratzen zitzaion, gainezka. Etxean, guztiok geunden alai, ezkontzarako gauzak prestatzen eta Ziortzaren eta Xabiren apartamentua janzten. Ama gaztetu ere egin zela esango nuke. Hara eta hona zebiltzan Ziortza eta bera, lanetik irten eta gero, beti izaten zuten zer ikusi edo zer erabaki. Beste elkarrizketarik ez zegoen gurean. Ezkontzaren bueltan bizi ginen. Dena ondo atera zedin. Dena perfektua izan zedin. Ederra.

Ezkontza-eguna zoragarria izan zen. Arrakalarik gabeko perfekzioan, eder. Eta, ondorengo guztia ere pentsatu bezala zihoakien. Burbuila zoragarri batean bizi ziren, aireak leun mugitzen zuena, hodeien gainetik, lurra ukitu gabe, bizitzaren ekaitzetatik urruti.

Horrela igaro zitzaizkien pare bat urte zoragarri. Denontzat izan ziren onak, niretzat ere bai. Xabik lantzean behin telefonoz deitzen zidan, eta Ziortzarekin batera konpartitzen zuen burbuilatik irteten zen, nire bizitza ilunaren itzalean nirekin egoteko. Gurea ez zen eten, ez zen apurtu. Bere horretan jarraitzen zuen mailatu gabe.

Hori guztia jakinda, batek pentsa zezakeen gupidarik gabe jokatzeko ari ginela. Ziortza engainatzen ari ginela. Ez genuela horretarako eskubiderik. Gaizto eta zikin jokatzeko ari ginela. Gu, ordea, aratz eta garden sentitzen ginen. Gure artekoak ez zion inori minik egiten. Ezta Ziortzari berari ere. Gurea maitasun liluragarri haren ifrentzua zen. Txanponaren alde ezkutua, akaso, itsusia.

Gutxira jakin genuen ume bat egin nahi zutela. Aspaldi zebiltzala ahaleginetan. Ezkondu eta gutxira, hasi zirela haurdunaldia gauzatu nahian. Horixe zen haien zeru oskarbian zegoen hodei bakarra. Gero eta handiagoa. Gero eta ilunagoa, haien zorioneko burbuila astintzen zuena.

Amak laguntzen zion Ziortzari mediku-osterak egiten. Probak, analisiak, tratamenduak. Hilabete bat, bi, hiru... Urduritasuna, nekea, tristura. Guztia bukatuta, jakin genuen Ziortzak ez zuela haurdun gelditzeko arazorik. Xabirengandik zetozen oztopoak. Ez omen zen ezinezkoa. Baina bai, oso zaila.

Sasoi horretan Xabik inoiz baino gehiagotan, ia-ia egunero, deitzen zidan. Beti bezala, goizetan. Amorruez eta bortizki egiten genuen larrutan. Gero, luze hitz egiten genuen eta berak barrena husten zuen. Batzuetan, garrantz egiten zuen negar. Nik ahal nuen kontsolamendu guztia ematen nion, eta Ziortzarengana lasaiago bidaltzen nuen. Errua, tristura eta negarra nire eremukoak ziren: alde ezkutukoak. Baina Ziortza bera ere goibelduta zebilen, distira galtzen ari zen, normaltzen. Ni, oster, — nire itsusitasunean —, inoiz baino ederrago nengoen. Ematen zuen Ziortzak galtzen zuena nik zurruputzen niola. Ondo sentitzen nintzen. Zerbait ezberdina sentitzen nuen nigan. Hasieran, ez nekien zein zen arrazoia. Gero, nire sabel hantuak emango zidan erantzuna. Ezin izango nuena ezkutatu.

Nire haurdunaldiaren notizia Hiroshiman jaurtiriko lehegailua baino indartsuagoa izan zen gurean. Benetako eztanda. Familiaren orekaren habeak abaildu zituen. Gurasoak harrituta gelditu ziren. Behin eta berriro akats edo errakuntza bat izan behar zela errepikatzen zuten. Amesgaizto bat baino ez izatea nahi zuten. Ez zuten sinetsi nahi. Ziortzak negarrez ematen zituen egunak eta gauak. Ez zitzaion begitantzen nire haurdunaldia bidezkoa zenik. Berari zuzendutako zigor bezala ulertu zuen eta, gure bizitzan, lehendabiziko aldiz, nirekin haserretu zen. Berbarik ere ez zidan egiten. Bera gutxiesteko gelditu nintzela haurdun pentsatzen zuen. Apropos egiten niola uste zuen. Urteetako mendekutzat hartu zuen. Xabik ez zuen ezer esaten. Nahikoa zuen Ziortza kontsolatzen. Horrez gain, bere kontua izango ez balitz bezala jokatzeko zuen, berak horretan zerikusirik txikiena izango ez balu bezala. Bestalde, inori ez zitzaion burutik pasatu bera izan zitekeenik mundura etortzear zegoen umearen aita. Bere balizko antzutasunak

babesten zuen kulpa guztietatik. Xabik betiko gordeko zuen isilean bere aitatasuna. Hori zen besteen aurrean egin behar zuena. Biok adostu genuena. Nire ahotik sekula santan aterako ez zena, eta berak inoiz aitortuko ez zuena.

Guztiek jakin nahi zuten nola gertatu zen, norekin, zein momentutan. Etxe barruan pasatzen nituen egunak, asteak, hilabeteak. Ez nuen lagunik. Ez nuen inor inguruan. Are gutxiago, gizonezkorik. Galderak eta galderak. Baina nire erantzun bakarra mututasuna zen. Mututasun tematia eta egoskorra. Erabateko hutsunea.

Aitak eta amak haurdunaldia aurrera zihoala ikustean, abortatzeko bidea proposatu zidaten. Pentsatzeko. Denborarik bagenuela. Arriskutsua izan zitekeela bai niretzat bai umearentzat. Zaila izango zitzaidala umea haztea, ia-ia ezinezkoa. Umeak ere bizimodu malkartsua izango zuela, eta abar, eta abar, eta abar. Nik entzun egiten nien, baina ez zitzaidan haien letania batere inporta. Jakin nahi nuen bakarra zen umea ni bezalako, nanoa, izango zen ala ez. Medikuarenera lagundu zidaten, era guztietako probak egin zizkidaten. Itxaron egin nuen, luze. Emaidza guztiak, halako batean, heldu zitzaizkigun. Eta, ez. Ez zegoen nanotasunaren zantzurik txikiena ere. Genetikak, arrazoirik gabe, ni zigortu ninduen, baina nire umea ez. Nik nire itsusitasunetik edertasuna sor nezakeen. Bizitzak aukera hori eman zidan eta bizi nahi nuen. Xabik goiz batzuetan deitzen zidan, eta hizketan egoten ginen. Xabi harrituta zegoen. Izugarria iruditzen zitzaizkion nire ausardia eta nire kemena. Uste dut inoiz baino gehiago maite izan ninduela. Hori esaten zidan, behintzat.

Di-da batean pasatu zitzaizkidan haurdunaldiaren azken hilabeteak. Sarritan joaten nintzen ospitalera probak egiten, akaso haurdunaldi normal batean baino gehiagotan. Baina oso ondo joan zen guztia. Etxekoak pixka bat baretu ziren, eta Ziortzak oso bakan egiten zizkidan bisita oso laburrak. Hotz eta erdi derrigortuta.

Etxean erditu nintzen. Nik erabaki nuen moduan. Beste behin, nire gurasoen iritziaren kontra. Ospitaleko emagina batek lagundu zidan. Ez zen arazorik egon. Umea, nire neskatila ederra ikusi nuenean, nire gainean eduki nuenean, jakin nuen zer zen zoriontsu izatea. Benetan zoriontsu izatea. Haurdunaldian sentitutako zalantza eta kezka guztiak, atoan desagertu zitzaizkidan. Nire alaba ondo zegoen. Normala zen. Akatsik gabea. Ederra. Itsusitasunetik jaiotako edertasuna. Nire bizitzari argitasuna eta ilusioa emango ziona. Ilunpetik aterako ninduen.

Gertutik ikusiko nuen nire alaba hazten, nahiz eta beste etxe batean biziko zen. Bai, horixe erabaki nuen nik. Ziortzari eta Xabiri emango nien nire alaba, haiena bailitzan haz zezaten. Ni beti egongo nintzen gertu, alboan. Baina ez nion bizitza txarrik eman nahi. Ni bezalako ama bat izatea ez baitzen erraza izango. Ziortzak eta Xabik, ordea, bizimodu ona eta normala emango zioten. Hobe nuen, beraz, hasiera-hasieratik izeba Mirentxu bihurtzea. Ziortzari deitzea. Ziortzari nire erabakiaren zehaztasun guztiak azaltzea. Nire alaba entregatzea eta nire ahizparen adiskidetasuna berreskuratzea. Xabi, beste behin, harrituta utzi nuen.

Etxekoak guztiz baretu ziren. Urak bere bidera bueltatu ziren. Gurasoak amesgaizto lotsagarri hartatik libratu ziren. Xabiren eta Ziortzaren zoriontasun-burbuila inoiz baino gorago zegoen, haize fin eta suabe batek eusten zion. Ziortza eta bion harremana berriro estutu eta loratu zen. Xabik, goiz askotan, "bisitatzen" ninduen. Nik, izeba Mirentxuk, Ziortza lanean zegoen bitartean, nire alabatxo gozo-gozo zaintzen nuen. Argi ume osasuntsua eta indartsua zen. Ez zuen nire itxura-arrastorik txikiena ere. Eskerrak! Xabirena, ordea, gero eta nabariagoa. Batez ere, irribarrea lehertzen zitzaionean. Kanean, edozeinek esaten zien Xabiri eta Ziortzari alabak aitaren itxura zuela. Hasieran, ezer esan gabe, elkarri begiratzen zioten. Orain, ordea, normaltzat hartzen dituzte horrelako komentarioak. Ohitu dira. Gutako inork ez ditu aintzat ere hartzen. Izan ere, egia jakitea ez da beti onena izaten, ezta?

KANTUKA

Aitormena

“Zin dagizut izan zarela ene bizitzaren onena” esan, eta, eskutik helduta, zeure ondoan jesarri ninduzun egongelako sofa granatean. “Aitortzen dut ez dizudala inoiz gezurrik esan eta”, baina zure esaldi hori bihotzaren sakonera erori zitzaidan hamar tonako harkaitz zatia ur barera bezalaxe: bortitz. “Baina orain, maitia, lehen baino lehen aska gaitezen”, eta hatz erakuslea ezpainen gainean jarri zenidan. Egia esan, nik ez nuen ezer esateko adorerik; zure jokabideari azalpen logikorik aurkitzen ez niolako.

Sofa granatearen gainean mugitu ezinik gelditu nintzen, hanka falta duen panpina zahar bat bezala, atzera gelditutako jostailu baten antzera. Bitartean, zu gelditu ezinik hara eta hona, gurpildun maleta handia betetzen ari zinen, lehenengo arrokekin, gero zapatekin, ondoren liburuekin eta, azkenik, elkarrekin egindako bidaietako argazki eta oroigarri batzuekin. Nire aurretik pasatzen zinen bakoitzean, kulpak zabaltzen zizun irribarre urduria luzatzen zenidan. Nik, bitartean, ezinegon ikaragarri horri arrazoi bat bilatu nahi nion: hainbeste denbora elkarrekin egin ostean, zerbait esan beharko zenidan, ezin zenuen horrela joan, beste barik, betiko desagertu. Antzematen nuen, ordea, alde egiteko gogo bizia zenuela, zure bekokian behera izerdi-tantak bidea azkarregi egiten ari zirelako, zure eskuek zugar naturala ez den dardara erakusten zutelako, eta zure pausoen erritmoa nik ezagutzen nuena baino dezente biziagoa zelako.

Zorioneko maleta eta beste hiru poltsa erraldoi bete eta gero, taxi bati deitu zenion sofa granatearen ondoko telefonotik, helbidea eman zenion askatasunerako bidean abiatuko zintuen ezezagun bati; telefonoa bere lekuan utzi, eta nire eskuaren gainean azken muxua pausatu zenuen, nire begirada bilatu gabe. Zure traste guztiak hartu, eta, egongelako alfonbrari zuzendutako “sentitzen dut” batekin, kanpoko ate-hotsak aditzera eman zidan sei urteko elkarbizitzak amaiera jo zuela.

Izoztuta gelditu nintzen, zainetako odola gatzatuta, atzamar-puntarik mugitu ezinik eta zirkinik egin gabe. Orduak, minutuak edo segundoak pasatuko ziren; ez dakit. Harridura-egoeratik esnatzen hasi nintzenean, benetan eta betiko alde egin zenuela ulertzen hasi nintzenean, musika jarri nuen nire malko garratzek hobeto dantza zezaten masailetan behera. Baina, bat-batean, gure apartamentu hustu berrian aspaldi entzun gabeko disko bat bilatzeari ekin nion nire onetik aterata, pieza jakin bat entzuteko premia nuen, udako egun sargoritsuetan ur freskoaren beharra sentitzen den legez. Begitandu zitzaidan kantu horretan aurkituko nuela zure hitz apurrek eman ez zidaten esplikazioa. Ez zenituen, bada, erabili kantu horretatik hautatutako esaldiak niri agur esateko! Horretan ere artista, ezta?

Bitxia dela pentsatuko duzu, baina ondo ezagutzen nauten lagunek badakite horixe dela nire kanturik kuttunena: euskaraz egin den maitasun (akaso, ez-maitasun) kanturik ederrena, baina gertatutakoaren ondoren beste zentzu bat hartuko du, lehen baino neureago egingo da, neureago hori latza eta mingarria izan arren. Beraz, gure diskoen artean hori bilatu, eta entzun egin behar nuen: Aitormena.

Baratze bat

Izaba Teresak oparitu zigun sofa granatea elkarrekin bizitzen jarri gineneko lehenengo urteurrenean. Inoiz ikusi dudan sofarik ederrena iruditu zitzaidan: belusezko luxua. Teresari zer esan ez genuen asmatu, opariaren neurria handiegia egin zitzaigulako, akaso dotoreegia gure moduko bikote gazte batentzat. Gogoratzen dut aurretik txistirik esan gabe egin zigula Teresak erregalua, neurria eta gustuko kolorea zein izan zitekeen galdetu gabe. Alabaina, bete-betean asmatu zuen gure maitasunaren erresumako belardi gorrixka izango zen zorioneko besaulkiarekin.

Izaba Teresak asko maite zuen Martin, lobetan gazteena zelako eta hark zeukan artista traza atsegin zuelako. Teresak ez zuen asko hitz egiten, nahiago izaten zuen besteek esaten zutena entzun, eta ingurukoekin keinu edo begiradak irakurtzen isilean gelditu. Aparteko trebetasun horri esker, bera izan zen lehena gure arteko erakargarritasunaren hizkuntza ulertzen, ez zitzaion ezer oharkabean pasatzen: fereka txiki bat, belarrira xuxurlatutako zerbait ... Izan ere, behin baino gehiagotan harrapatu nuen guri begira, eta, holakoetan, hain berea zen irribarre txiki batekin aditzera ematen zidan gustuko zuela gu horrela ikustea.

Ezagutu ninduenean, Martinen beste kapritxo bat izango nintzela pentsatu zuela uste dut, ez zen gehiegi saiatu (ez bera, ez beste inor) ni ezagutzen eta, are gutxiago, aintzat hartzen; hasierako familia-bazkari edo bileretan Martinen itzala baino ez nintzen haientzat, bere ondoan jartzen zena eta harekin batera alde egiten zuena. Baina, poliki-poliki, Teresa konturatzen hasi zen etxeko neskazalea eta ustez betiko ezkongabea zeharo tematuta eta itsututa zegoela nirekin.

Martinen ingurura egokitzeak denboratxoa iraun zuen, ni baino lehen makinatxo bat neska ezagutu zuelako familiak, eta hoztasunez hartu ninduten. Gurasoek Bilboko zabalgunean zuten pisu erraldoi horretan biltzen ginen gehienetan. Asko zirenez, sarri egoten zen urtebetetzeren bat, urteurrenen bat, edo bestelako gertakizun alairen bat ospatzeko. Etxeko jangelako mahai luzearen bueltan estutzen ginen, eta han egoten ziren denak berriketa batean etxeko zerbitzari biek platerak eraman eta ekarri etengabe ibiltzen ziren bitartean. Uraren gaineko aparrean bizi ziren denak. Gurasoak nagusiak izan arren, gazte eta kolore biziz jantzen ziren, algaraka egiten zuten barre eta bidaiez, antzezlanek edo lagunekin azken asteetan egindako afariez hitz

egiten ziguten. Agerikoa zen disfrutatzen zutela elkarrekin egoten zirenetan, horrexegatik nahi zuen Martinek ni ere han egotea: euren tartean eta euren elkarrizketetan murgiltzea. Martinek guztiei elkarrekin bizitzeko asmoa genuela esan zienean ere, ez nuen izan espero nuen onarpena. Martinen ingurukoek urtebete baino gehiago behar izan zuten gure artekoa benetako zela ulertu arte, eta Teresak, nola ez, egin zuen lehendabiziko urratsa gure alde, sofa granatea oparitzearekin batera.

Ordura arte, bageneukan besaulki trauskil bat egongelan, balkoi luzearen ate bien erdian. Onartu behar dut kretonazko lore urdinkarak nahiko lausotuta zeudela eta bertan jesarrita egotea ez zela oso eroso, gorputza ez zelako haren formara erraz egokitzen; badakizu, lehen beste modu batean egiten ziren etxeko altzariak, eta gure sofa zaharra sasoi hartakoa zen. Luismik eta Begok eman ziguten, elkarrekin bizitzeko pisua alokatu eta pare bat egunera "lurrean eserita baino hobeto egongo zarete" esan eta gero; guk, eskertuta, afaltzera gonbidatu genituen lagunok, eta horrela hasi zen elkarrekin egiteko genuen bidea: ilusioa, lagunak, pasioa, afariak, irribarreak, musika, ardoa... eta sofa zahar batean sartzen ez zen maitasun berria.

Lehenengo urte hartan etxea habia egiten ahalegindu ginen; ez genuen gauza handirik behar, eta lagunek edo senideek emandako traste zaharrek moldatu ginen. Poliki-poliki bion gauzak nahasten joan ziren, arropa zikinaren saskian gure alkandora, galtzerdi, praka eta kulero kide egin ziren moduan. Etxean gero eta nire/zure gutxiago zegoen; egunetik egunera gure hitza gailentzen zihoalako.

Udaberriko igande goiz batean Martin Arenalera joan zen, ni ohean erdi lo lagata. Bueltatu zenean, plastikozko poltsa zuri mordo bat utzi zuen egongelako ate ondoan, eta nire bila abiatu zen, atzetik estali zizkidan loak txikitutako begiak bere esku ahurrekin, eta egongelara eraman ninduen itsu. Nire aurpegi gainean pausatuta zeuzkan atzamarrak zabalduz, aurrean neukana ikusi ahal izan nuenean (Arenaletik ekarritako landare eta lore piloa) "baratze bat nahi dizüt egin" astiro eta leun kantatu zidan belarrira. Igande hartan, Berzaice-ren kantua auzoko guztiek entzuteko moduan jarrita, Martinek benetako baratzea egin zidan gure balkoi luzean, elkarrekin bizi izan ginen denbora guztian goxo-goxo zaindu zuena.

Igande arratsaldeetan ez ginen usu kalera joaten. Gehienetan, Martinek bazkaldu ondoren aprobeztatzen zuen landareak ureztatzeke, orri iharrak kentzeko eta gure baratzean behar zen guztia egiteko. Bukatzen zuenean, balkoira eramaten ninduen nire oniritziaren zain, eta nik musu umel eta estuekin eskertzen nion gure amodioa loretan iraunaraztea; gero, sofa granatearen gainera erretiratzen ginen. Ez, ez genuen aparteko ezer egiten, batzuetan film bat ikusten genuen, edo liburu bat hartu eta musika entzuten pasatzen zitzaigun denbora. Udaberriko igandeetan, balkoiko ate biak irekitzen genituenean, haizearekin batera krabelin loratu berrien usaina sartzen zitzaigun, eta Martinek nire oinak hartzen zituen astiro-astiro igurzteko, maitasunezko uhinak nire zangoetatik gora zabal zitezen. Askotan, sofan gelditzen

ginen lo eguna zabaldu arte. Erdi jantzita eta izerditurik esnatzen ginen: nire oinak haren izterren artean korapilaturik, eta haren burua nire beso eta bularraren magalera egokiturik.

Gure maitasunak ez zuen parekorik, geometria perfektua osatzen genuen, erpin arrastorik gabeko biribila. Gure artekoa erabateko konplizitatea zen. Ondo baino hobeto ezagutzen nituen bere aurpegiak egiten zituen mugimenduak, eskuen erritmo orekatua, eta probatuta nituen haren gorputzaren tolestura tentagarri guztiak. Nekez ezkutatu ahal zidan Martinek nahigaberik edo ezustekorik, ez genuen sekreturik den-dena partekatu nahi genuelako. Inguruan genituen bikoteen aldean gureari zerion magia apartekoa zela pentsatzen genuen; jende artean geundenean ere, elkarren begirada bilatzen baikenuen. Imana eta metala ginen, bata bestearen ondoan egoteko sortuak, maitasunezko baratze berean bizi ginen espezie bakanak.

Zure begiek, ene maitia...

- Utziko didazu zure begiei argazki bat ateratzen?
- Barkatu, ez dizut ondo ulertu.
- Beno, ikusi zaitut nire argazkiak interes handiarekin begiratzen, eta pentsatu dut, beharbada, ez zitzaizula inporta izango hurrengo erakusketa baterako zure begien argazkiren bat gordetzea.
- Nire begiena?

Horixe zen hain zuzen ere, nire gorputzetik gutxien gustatzen zitzaidan atala Beti esaten zidan amak despistatu itxura nuela, esnatu berriaren traza zuela nire begiradak; horregatik, aholkatzen zidan begiak apur bat pintatzeko, marra beltz batek indar handiagoa emango ziolakoan nire aurpegiari. Hortaz, pentsa dezakezu zein harrituta gelditu nintzen, nire begi ezkelei norbaitek argazki bat atera nahi ziela entzun nuenean.

- Bai, ondo entzun duzu, zure begiei.
- Ez dut uste gordetzeko moduko ezer aterako duzunik ...

Konturatu nintzenerako, baina, klik-segida arin bat entzun eta kamera bat sentitu nuen aurpegia inguratzen. Une horretan munduko pertsonarik ergelena nintzela pentsatu nuen, eta bakarrik niri gerta zekidakeela horrelako zer bait.

— Erratuta zaude; nik ez dut gazte eredugarri horien begirada perfekturik nahi, benetako begiak harrapatu nahi ditut, ez kirurgiak findutakoak edo modelatuak. Ez ditut modeloak gustuko, kaleko jende arrunta nahiago aukeran; bestela, begiratu berriro aurpegi horiei guztiei, haietan erraz asko topatuko dituzu zimurrak eta urteek txikitutako begiak, lo ezak uzten duen arrasto ubela eta pozak eragiten duen txinparta-dantza.

Etorri handiko gizona zela ezin zen zalantzan jarri, baina bazuen zerbait gustuko ez nuena. Erraza zen imajinatzea ni bezalako beste inuzente bati antzeko gauzak esaten; egiten eta esaten zuen guztiak antzezlan eskas bateko atal ikasiegia zirudien. Gainera, Argirekin jarritako hitzordura arinegi heldu nintzelako sartu nintzen ditxosozko argazki-erakusketa hartan, ez nuen inongo interesik munduko beste puntan bizi zen jendearen begiradetan, ezta ere aurrean nuen gizon harro haren lanean. Egoera txatxu hura ez nuen gustuko, eta ez nekien zergatik jarraitzen nuen han, denbora eta pazientzia galtzen.

— Uste dut berandutu zaidala; eskerrik asko zure azalpenengatik baina joan beharra daukat. Lagun batekin gelditu naiz, eta dagoeneko nire zain edukiko dut.

— Nahi baduzu zure lagunarekin etor zaitezke, eta astiroago azter ditzakegu erakusketako erretratuok.

— Asko eskertzen dizut eskaintza, baina hurrengo batean beharko du izan.

— Ondo da, baina zure izena jakin nahiko nuke, argazkien atzeko aldean jartzeko. Ahal dudan guztietan, horrela sailkatzen ditut: izena eta data.

Irribarre zabala erabili zuen ni konforme geldi nendin. Argi zegoen ohituta zegoela nahi zuen guztia lortzen, batez ere emakumeengandik. Nik, ostera, ez nituen gustuko tankera horretako gizonak, haien ondoan ez nintzen batere eroso sentitzen, ziria noiz sartuko zain barneko alarma gorria automatikoki pizten zitzaidalako, eurek intentzio ezkuturik eduki gabe ere. Egia esan, itxura oneko gizona zen. Janzkera ere halakoa zerabilen, baina nabarmenena zen bazuela bere xarmaren berri.

— Jone, Jone naiz.

— Itxaron, paper-txatal batean idatziko dut, ez ahazteko.

Erakusketa-gelaren bazter batean zegoen mahaira hurbiltzen hasi zenean “zure begiek / ene maitia / badute biek / dir-dir ezta” kantatzeari ekin zion, bere ziurtasun probokatzaile hura agerian utzi nahian. “Harro halakoa!” pentsatu nuen neure bostean; eta, atzera nirekin elkartzeko buelta eman baino lehen kalean nintzen, ia-ia ezertaz ezagutzen ez nuen gizon batekin zeharo haserre.

Nire begiek

Baziren pare bat urte Argi Bartzelonara ikastera joan zenetik, eta hasieratik nabaritu nuen haren hutsunea. Ohituta nengoen oso gaztetxoak ginenetik elkarrekin egoten, bion sekretutxoak partekatzen eta adiskidetasunaren berotasuna zer den berari esker sentitzen. Baina institutukoak amaitu zirenean, bakoitzak bide berri bati ekin zion: nik nire betiko Bilbon, eta Argik urteekin hainbeste maite izango zuen Bartzelonan. Jarraitzen genuen telefonoz sarri hitz egiten, korreoak eta mezuak trukatzeko eta — ahal zenean — oporrak batera egiten. Hori dela eta, ahal nuenetan Argi bisitatzera joaten nintzen.

Beste bi lagunekin batera berak alokatuta zeukan pisuan gelditzen nintzen beti, edo zehatzago esanda, Argiren gela berean. Saiatzen nintzen traba ez izaten, Argik ikasteaz gain, jatatxe dotore horietako batean zerbitzari lan egiten zuelako astean hiru edo lau iluntzetan. Beste pisu-kide biek, ordea, ez nuen tratatu handirik izaten, ezta Argik berak ere. Alde batetik, etxean denbora gutxi egiten zutelako guztiek; eta bestetik, ohikoa zelako ikasturte batetik bestera batek alde egitea eta beste kide berri bat sartzea. Horregatik, besoak eta bihotza zabal-zabalik hartzen ninduen Argik, han benetako lagunik ez zuelako eta bakardadearen zama — egun batzuetan, gutxienez — arintzen niolako.

Hala ere, ez zitzaidan gustatzen bere gainean egotea, noiz libratuko zuen edo beste norbaitekin geldituta zegoen galdetzen ibiltzea. Atsegin nuen hiri handi horretan ibiltzea, nire betiko Bilbon baino askeago sumatzen nuen nire burua ezagutzen ez ninduen jendetzaren artean.

Bisita horietako batean, Argik lo egiteko premia zuela-eta ilunabarrera arte etxean geldituko zela esan zidan; hego haizea zebilen gogor samar eta hodei arrastorik ez zegoen hiriaren gaineko zeru amaigabean. Hori dela eta, Gracia Pasealekutik ibiltzea erabaki nuen, erakusleihoei erreparatzea, presarik gabe nonbaiten bazkari legea egitea, neure buruari zerbait oparitzea, akaso film bat ikustea, edo beste edozer egitea. Halako batean — eta benetan diotsut ez dakidala nolatan — kafe bat lasai hartzeko toki egoki baten bila nengela, arte-galeria baten ate ondoan suertatu nintzen, eta, beste ezer pentsatu gabe, barrura abiatu nintzen.

Galeriaren hormetatik errukia eskatzen zuten begiek, bizipozaren sekretua aurkitu berri zuten begiek, maitatzen zein gorrotatzen zekiten begiek, eta beste begirada askok bideratu zuten nire ibilbidearen nondik norakoa. Gelaren erdian, mahai dotore batean, erakusketaren gaineko informazioa eskura nezakeela konturatu nintzen, koloretako paperek letra tamaina izugarri batean Mundu zabaleko begiradak eta argazkilariaren inguruko informazioa eskaintzen zuten. Normaltasunetik harago zihoan kasualitatea zela pentsatu nuen, ia-ia zerbait magikoa, horregatik hasi nintzen erretratu bakoitzari arreta jartzen, haietako bat nirea izan zitekeelako. Beharbada, nire begiak nire gorputzetik kanpo ikus nitzakeen, marko dotore baten barruan, beste batenak balira bezala.

Hasi nintzen banan-banan erretratuak aztertzen, hurbiletik zein urrutitik, astiro zein arin. Laster batean aurkitu nintzen, hobeto esanda, aurkitu nuen nire begien argazkia. Argazki guztiak ez ziren neurri berekoak — ohiko erakusketetan bezala —, eta nireari txikitasuna egokitu zitzaion, baina han nengoen izen, data eta guzti: “Jone/ Bilbo, 2009”.

Begi dotoreak iruditu zitzaizkidan nireak, — ez ezkelak eta hilak amak txantxetan esaten zidan moduan — berez asko adierazten duten horietakoak, eta, bat-batean zeharo alai sentitu nintzen, argazkia etxera eramateko gogo bizia sentitu nuen, are gehiago, oheburuan gustura jarriko nukeela pentsatu nuen eta besterik gabe, Ruper Ordorikak aspaldi kantatzen zuen kantu bat etorri zitzaidan lehenengo burura eta gero, erdi isilka, ezpainetara:

*Ene begiek ez dute malko isurtzeko gogorik
denik eta bizitza bakarra bizi dutelako (...)
Begira erlojuetako orratzak uneka herdoiltzen
zenbat gauza utzi dudan estarta bazterretan
edo laku urdinen hondoan bizitza bakarrean (...)*

Eguerdia baino ez zen. Banekien Argi jota zegoela, eta, eguneroko martxari aurre egin behar bazion, deskantsatu behar zuela; banekien iluntzean elkarrekin egongo ginela eta nire ibileren berri emateko aukera edukiko nuela, baina aurkikuntza hura, demaseko kasualitate hura, Argiri kontatu behar nion, ezin nuen iluntzera arte itxaron; gainera, seguru nengoen Argik ulertuko zuela nire emozioa eta, zergatik ez, nire poza. Beraz, birritan pentsatu gabe...

Argi kezkatuta iritsi zen, nahiz eta nik esan nion ez zuela arduratuta egoteko arrazoirik. Bekokiaren zimurretan eta begien gehiegizko zabaltasunean antzeman nuen haren ezinegona. Nire ondora heldu zenean, besotik heldu nion, eta, azalpen ganorazkorik eman gabe, erakusketa-aretoa sartu ginen, eta nire argazkiaren aurrean —“Jone/ Bilbo, 2009” — jarri nuen beste ezer esan gabe.

— Zer iruditzen zaizkizu ene begiak?

— Jone, burua galtzen ari zara? Ez dut ezer ulertzen

— Ez duzu ikusten? Hor nire izena dago, eta ikusten dituzun horiek nire begiak dira; orain dela pare bat urte gertatu zitzaidan pasadizo surrealista baten emaitza da ikusten ari zaren argazkia. Uste dut ez nizula ezer kontatu, guztia patetiko samarra izan zelako; baina ulertu behar duzu zelakoa izan den nire emozioa gaur eguerdian argazki hau, duela bi urte niri egindako hau, non eta Bartzelonan, ikusi dudanean.

— Zuri gertatzeko ez da asko!

— Ez haserretu nirekin. Badakit nekatuta zaudela eta etxean egoteko plana zenuela, baina...

— Zer demonio duzu orain?

— Argi, begiratu disimuluz aretoaren erdialdera, mahaia dagoen lekura. Hori da argazkilaria, erretratuen egilea eta harroputz galanta.

— Badauka zertaz harro egon!, oso mutil erakargarria, interesante horietakoa.

Hantxe zegoen, aretoaren erdian, ni bezalako tentel itxurako neska lotsati bati argazkien gaineko azalpenak ematen. Seguru nengoen hurrengo urratsa argazkiak ateratzea izango zela, tupustean aterako zizkiola, eta neska gajoak lotsak jota alde egingo zuela. Guztiz seguru nengoen irribarrea aterako zitzaioala gure ehiztariari neskaren aztoramena antzematean. Seguru dibertitzeko egiten zituela horrelakoak, bere ziurtasuna elikatzeke, hiri jendetsuegian lehoia oihanean baino boteretsuago sentitzeke.

Amorrua sentitu nuen. Atera kontuak, ostera ere ezagutzen ez nuen gizon horrekin haserre! Lehendik ere ezagutzen nuen amorru horren zaporea, ez zen niretzat ezezaguna; izan ere, antzeko gizonak ziren nire espezialitatea, edo ni euren. Pare bat harreman moduko eduki nituen, eta bietan zeharo engainatu nindutela sentitu nuen, aurpegira eta gogotik egin zidatela barre; hori dela eta, ikasi nuen beste hoztasun batekin tratatu behar zirela gizonezkoak eta ez zela esaten zuten guztia sinetsi behar, “ene begiek ez zuten malko isurtzeko gogorik”, eta horretarako, “zenbat gauza utzi nituen estarta bazterretan edo laku urdinen hondoan”. Orduan pentsatu nuen aretotik irten berri zen neskarengatik gizon harekin jolastuko nintzela, bera errukirik gabe edozein emakumerekin jolasten zen bezalaxe. Norbaitek irakatsi behar zion emakumeak bestela tratatzen, merezi dugun duintasunaz. Ez nekien ezer bere bizimoduaz, baina nik neuk piztutako amorrazioaren garrean, Argi aretoaren bazter batean aho zabalik lagata, eta nire irribarre-erregistrotik kitzikagarriena aukeratuta, bere aurrean plantatu nintzen:

— Ez dakit gogoratzen nauzun, Jone naiz.

Ez nion beste pistarik eman nahi, buruari apur bat eragin ziezaion. Bitartean, irribarre gozoari eutsi nion, eta aitortu behar dut ongi sentitzen hasi nintzela berehala, batez ere nire gorputzaren gainean bere begirada apur bat kikildua nabaritu nuenean.

— Barkatu behar didazu, oso aurpegi ezaguna egiten zait zurea, baina oraintxe bertan ez dakit... Jone deitzen zarela esan didazu, ezta?

— Bai, Jone. Ez estutu, ulertzen dut hainbeste emakume ezagutzen duen gizon batek ez lotzea guztion izenak eta aurpegiak, lasai.

— Gehienetan ondo akordutzen naiz, baina atzo zabaldu genuen erakusketa, eta burua daukat ez dakidala zertan nabilen ere.

— Ez kezkatzeko esan dizut. Ziur nik buelta eman, eta orduantxe etorriko zaizula akordura nondik ezagutzen nauzun.

Gizona gero eta deserosoago ikusten nuen, ez zuelako egoera menderatzen; nik, ordea, berak ezagutzen ez zuen jokoarekin jarraitu nahi nuen, disfrutatzen hasia baino ez nintzelako.

— Ez dakit, akaso ausartegia izatea begitanduko zaizu, baina apuntatu hor mahai gainean daukazun paper-txatal batean zure telefono-zenbakia eta izena, badaezpada.

Nik agindutako eran, zenbakia jarri zidan paper batean, eta eman egin zidan hitz egokirik asmatu ezinik.

*Ene begiek ez dute malko isurtzeko gogorik
denik eta bizitza bakarra bizi dutelako (...).*

... Zer gehiago behar dut nik?

Martinek alde egin ostean, egun pare bat eman nituen gertatutakoa sinetsi ezinik. Ez zen posible horrelako zerbait guri gertatzea; zenbat eta gehiago pentsatu eta hausnartu, orduan eta argiago ikusten nuen gaizki-ulerturen batek izan behar zuela guztiaren zioa. Ez nuen gogoratzen eztabaida esanguratsurik, haserrealdi berorik edo antzeko ezer. Gure bizitzak lasaia eta goxoa izaten jarraitzen zuen, gorabeherarik gabea, orekatua eta ordenatua, ia-ia akatsik gabea.

Ez zen posible horrelako zerbait guri gertatzea. Gure adiskide batzuk, Luismi eta Bego esaterako, aurreko urtean banatu ziren, baina guztiok antzematen genuen haien artekoa ez zihoala behar bezala, maitasuna maiztu zitzaiel. Gainera, haiek bazituzten bi seme-alaba txiki, euren arteko harremana total aldatu zutenak; argi genuen besteok Begok eta Luismik ez zutela aspalditik elkarrekin egoteko denborarik hartzen, lagunekin — betiko lagun minekin — ibiltzeko aukerak uxatzen zituztela behin eta berriro, aitzakia arin eta zuriekin, bikotea lausotu egin zela, egunerokotasunean urtu zitzaiel. Baina, hori ere ez zen, inolaz ere gure kasua.

Elkarrekin bizitzen jarri eta denboratxo batera, lagunak mundu malapartatu honetara umeak ekartzeko burutazio inuzente horrekin hasi zirenean, Martinek eta biok erabaki genuen ez

ginela sartuko gizarteak normaltzat zuen bidean, ez genuela ohiko familia eredugarri bat osatu nahi. Ez genuen beste ezer behar gure unibertsoari kolorea emateko, ez genuen bilatu nahi emozio berririk edo bizitasun zororik. Bagenekien aurrerantzean ere primeran moldatuko ginela bikotean, biok biotara, hasi ginen bezala: elkarrekin eta elkarrentzat.

Hori guztia entzunda batek pentsa dezake bikote itxi eta estua ginela, besteen beharrik ez genuela edo lagun gutxi gelditzen zitzaigula; baina ez zen hori, ezta pentsatu ere! Martinek han eta hemen argazkiak ateratzen jarraitzen zuen, haren izena gero eta ezagunagoa zen kazetaritzan, batzuen iritziz artista handia ere kontsidera zitekeen beraren argazkiei zerbait ezberdina zeriela. Gehienetan oso estilo biluzia erabiltzen zuen, baina nekez ahatz zitezkeen haren kameran sortzen ziren zuri-beltzezko irudi indartsu eta sotilak. Askotan, heltzen zitzaizkion kanpora joateko gonbidapenak; gehienetan, erakusketak izaten ziren deien arrazoi, beste batzuetan aldizkari ospetsuren batek eskatzen zion lanen bat edo beste egitea, eta azken boladan denbora gehiago ematen zuen atzerrian etxe inguruan baino.

Nik oso gutxitan lagundu ahal izaten nion, nire lanbideak aukera gutxi ematen zidalako. Martinen lana eta nirea zeharo ziren ezberdinak. Nirean dena zegoen alde zurratik pentsatua, eta gehienetan, prestatua. Agenda eta ordenagailu eramangarria ziren nire lagunak leialenak, enpresako bilerak, aurrekontuak eta balantzeak zirelako nire eguneroko betebeharrak eta buruhaustea. Urtetxoak neramatzan enpresa berean, horregatik ondo baino hobeto nekien zein ziren nire ardurak baita nire menpe nituen beste kideenak ere. Lanean oso eraginkorra nintzen, oso denbora gutxian egin nuen gora, eta gero eta ardua handiagoak hartzerik behartzen ninduten. Nagusien begiko nintzen, baina nire menpekoek ez zuten nitaz iritzi ononik. Horrek, ordea, ez ninduen batere kezkatzen. Gehienentzat emakume hotz eta segurua nintzen, negozioetan zurrak eta mesfidatia, nekez urduritzen zen horietakoa eta, batzuetan, pentsatzen nuen lankideei ez zitzaizela arrazoirik falta. Oso gutxitan gelditzen nintzen eurekin kafe bat hartzen edo afaltzen. Ez nuen gustuko izaten ospakizunetan endredatzea, ezta tratu bat ondo itxi eta etekin onak lortzen genituen ere. Saiatzen nintzen hurbilegi ez egoten, lana eta adiskidetasuna ez direlako erraz uztartzen. Nire lanbideak eta enpresan betetzen nuen lanpostuak horrelako jarrera eskatzen zuten, edonor bihur daitekeelako lehiakide edo etsai, eta konfiantza gehiegi emateak ez dakarrelako ezer onik.

Nik ere bidaia ugari egin behar izaten nituen, enpresa ekialdeko Europan zabaltzeko ahaleginean zebilelako, eta, tratu gehienak hemen bideratzen ziren arren, beti azaltzen zen gorabeheraren bat dena delakoaren lekuan argitu beharrekoa. Gehienetan, baina, hurbileko bidaiak egiten nituen, gehien jota astebetekoak, eta Bartzelona ingurura joan behar izatea ilusioz eta poztasunez hartzen nuen. Horietan, aukera aprobetxatzen nuen Argi ikusteko, bera baitzen nire benetako adiskide bakarra, nahiz eta urteen joan-etorrian gure bizimoduak erabat muturrekoak bilakatu.

Argi adiskidea baino gehiago zen niretzat; batez ere, ama nire aurrean ziplo jausi, eta egun pare batera hil zitzaidanetik. Unibertsitateko ikasketak bukatu berri nituen, eta ahalegin guztian nenbilen lan bila, ondo baino hobeto nekielako amarentzat neketsua eta gogorra izan zela nire ikasketei aurre egitea. Nik lan ona eta duina izateko, amak bulego triste batean ematen zuen egunaren zatirik handiena, eta, enpresa berean urte mordoa eginda ere, ez zituen inoiz jaso ez merezi zuen soldata ezta begirunea ere. Gutxitan ibiltzen zen lagunekin, eta asteburuak joaten zitzazkion etxe zuloa garbitzen eta txukun itxuran jartzen; asko jota, erreka ondoan paseatzen zen bere bakardadearen konpainia leialarekin. Aitak utzi gintuen hiru urte nituenean, eta harrezkeroztik amak bere bihotz zauritua giltzapen ezkutatzearabaki zuen. Ez neukan, hortaz, neba-arrebarik. Familia amarekin hasi, eta bukatzen zen; ondorioz, pentsa zenbat kostatu zitzaidan amaren bat-bateko heriotza gainditzea. Bene-benetan bakarrik eta ezlekuan gelditu nintzen, munduaren orbitan harri bat biraka eta noraezean ibili daitekeen moduan. Inork ez ninduen behar eta ez nintzen inoren bizitzaren parte. Biztanle bakarreko uhartea nintzen itsaso beldurgarri eta zabalegian.

Argik etorri behar izan zuen Bartzelonatik. Bere etxera eraman zituen nire puskak, eta, doan oparitu zidan egunetako eta asteetako goxotasuna hartuta ere, estuegi lotu omen ziren nire ahultasunaren zatiak. Ez nuen jakin beste modu batean egiten, eta Jone berri bat bueltatu zen Bilbora, aurrekoa baino gogorragoa eta hotzagoa.

Argik Biologia-ikasketak bukatu eta gero, lana aurkitu zuen Bartzelona ondoko araztegi batean; gerora, ezkondu, hiru seme-alaba izan, herri kozkor batean landa-etxe bat erosi, eta hiria ia zapaldu gabe bizi zen. Argik beti bezala hartzen ninduen, bihotza eta besoak zabal-zabalik zituela. Gogotsu hartzen zituen nire bisitak. Mesede handia egiten zigun solasaldi luzeetan murgiltzeak, elkarren bizitzak egunean jartzeak edo elkarren ondoan isilik egoteak. Gustatzen zitzaion nire hiriko arropa dotorea ikustea, nire maleta astintzea, soinekorik estuenak janzea, zapata takoidunak probatzea, eta senarraren aurrean imintzioka jartzea. Landa-etxeko gelarik handiena eta argitsuena izaten zen nirea — bertan bezerorik ez bazuten, behintzat —, eta aitortu behar dut, eurekin nengoenean, etxean sentitzen nintzela. Argik gutxitan galdetzen zidan ezer Martinen kontura, inoiz kortesiak agintzen zuen zerbait, baina nik ondotxo nekien ez zuela gogoko, eta ahalegintzen nintzen haren gorabeherarik ez aipatzen.

Argiri hasiera-hasieratik, ezagutu zuen egun beretik, harroputz jasanezina iruditu zitzaion Martin, eta urteek ez omen diote iritzia aldatzeko arrazoirik eman. Martinekin bizitzen jarri nintzenean, ezin zuela sinetsi esaten zidan aukera zuen guztietan, edozein nerabe inuzenterekin topatuko nuela ligatu nahian bihar edo etzi, nik beste zerbait merezi nuela, sakontasun gabeko gizona zela, itxura hutsa, telebistan eta modako aldizkarietan agertzen diren horietakoa zela, eta abar, eta abar ... Ezin zuen ulertu zelan egon nintzekeen hain maiteminduta, hain itsututa — berak esaten zuen moduan —; ez zuen uste luzaroko kontua izango zenik gure artekoa, beroaldi bat baino ez, kapritxo hutsa.

Jauma oso bestelakoa zen: atsegina, gozoa, lasaia ... Berak ere benetan estimatzen ninduela sentiarazten zidan: ardo botila onak zabaltzen zituen nire etorrera ospatzeko, afari bikainak prestatzen zizkigun Argik eta biok logelan nire traste apurrak egokitu bitartean, eta, gehienetan, umeak oheratzeaz ere bera arduratzen zen gure elkarrizketa eten ez zedin. Afaloste luzeetan beti bukatzen genuen kantuan “badut semea, badut andrea, alaba ere badut nik, osasun ona batetik, ondasuna bestetik. Zer gehiago behar dut nik?” Argiren aitak ospakizunetan kantatzen omen zuena, Argirentzat hunkigarria eta xamura zen kantua, haurtzaroko eremu epel eta goxora bidaiatzen laguntzen ziona. Baina ez zen hori bakarrik, bertso horietan bere bizitza goitik behera deskribatzen zen. Bazuen hori guztia; nik, ordea, ez semerik, ez alabarik, ezta etxe txiki zuri politik ere. Batzuetan, min-zitada zital batek astintzen ninduen, baina berehala ahalegintzen nintzen pentsamendu horiek uxatzen. Argik eta biok kantu bera kantatzen genuen, baina ahots bitan, eta, beharbada, niri zegokidan ahotsa garratzagoa zen, zailagoa kanturako.

Aupa Etxebeste!

Martinek alde egin ostean, astebete eman nuen etxean. Sofa granatearen gainean eserita, telefono tematia eta mutua altzoan nuela. Jan gabe, lo egin ezinik, balkoiko nire baretzeko landareen martxan zimeltzen. Aste santu osoan inorekin hitz egin gabe, Martinek prestatutako mokadu mikatzari digestio astuna egin nahian. Egun gutxira, bulegotik deitu zidaten. Lehendabizi, asmatutako ondoezaren gainean galdezka, baina, gero, bospasei esaldi hutsalaren eta zuriren ostean, beste edozein unetan, ezetz biribila emango nion proposamenaren berri emateko.

Praga ingurua sobera ondo ezagutzen nuen. Hilabeteak neramatzan han koka zitekeen lantegi baten proiektuak eta aurrekontuak gorpuzten, eta lau bat aldiz bertan egona ere banintzen. Aspaldi bateko bilera gehienetan, sutsu defendatu nuen Pragako proiektua beste batzuen aldean, ekonomikoki bideragarriena zelako, buruhauste gutxirekin gauza zitekeelako eta, egun, egin samartuta zegoen. Ondotxo nekien lankideren batek pare bat urteko egonaldia — edo akaso luzeagoa — egin beharko zuela bertan enpresa berria martxan jarri arte, baina ez nuen inolaz ere pentsatzen aukeratua ni izan nintekeenik. Ez nengoen, ordea, mementorik egokienean, ahulduta eta indarge sentitzen nintzen, ezgauza, nahiz eta estimatu nuen enpresak nigan jarritako konfiantza. Ardura handiegia zen, zaila ganoraz zuzentzen, ume txiki batentzat amaren takoidun zapata altuekin korrika egitea bezalakoa.

Bulegokoekin hitz egin ostean, ez nuen izan burua berotzeko gogorik. Sofa granatera eta telebista aurrera bueltatu nintzen. Telebista nuelako konplize berri eta adiskide bakar. Ez zidan ezer eskatzen, eta ni bezalako izaki tristeak ekartzen zizkidan parera nire mina arintze aldera. Itxura barregarria zuen film bat suertatu zen: Aupa Etxebeste! Horixe behar nuen, burua nekatu

gabe orduak pasatzen utzi, baina berehala harrapatu ninduten filmaren nondik norakoek. Ematen zuen telebista bera ari zitzaidala irtenbide bat eskaintzen, ordura arte niri burutik pasatu gabeko bat, filmean ikusten niharduen hori nik neuk egin nezakeen. Herri koxkor bateko alkatearen familiaren gorabehera penagarriak modu umoretsuan kontatzen ziren. Alkateak ez zuen ohiko udako oporrak egiteko dirurik, eta ezin Benidormera joan, baina, euren mailari eutsi behar ziotenez, ezin zuten onartu herriko beste edozein familiaren modukoak zirenik agerian utzi, eta uda herrian pasatu. Eztabaida bihurri eta surrealista luzearen ostean, familiakoek adostu zuten etxe barruan ezkutatzea ustezko oporrak bukatu arte, kanpoan egon izan balira bezala. Guztiei gezurra esatea eta gezurraren itzalpean gordetzea. Eustea. Agian, horrela esanda, ez zaizu oso interesgarria irudituko, baina gezur horrek salbatu zituen. Jarraitu zuten euren bizimoduan eta ez zioten inori azalpen mingarrik eman behar izan.

Hortaz, erraz asmatuko duzu zer erabaki nuen, ezta? Bada, zorakeria izugarria izan arren, nik ere filmeko familiak bezala, pentsatu nuen gezurrak lagunduko zidala nengoen zulotik ateratzen. Ez nion inori ezer azaldu behar, inork ez zuen jakin behar Martinek utzi ninduenik. Hori zabaldua, muturreraino barregarri garatuko nintzen askoren begietan, patetiko, eta ez nuen nahi nire babeserako eraikita nuen harrizko murru sendoa suntsitzerik. Inork ere ez zuen gure porrotaren berri izan behar, ezkutuan gordetzea eta hanka egitea zen onena, Etxebestetarrek egin zuten bezala. Ondo pentsatuta inor ez zen harrizko Martinek erakusketa berri bat antolatzeke-edo etxe inguruan ez egotea; eta bestetik, Pragara joateko proposamena une ezin hobean heldu zitzaidan, horri esker betiko bizimodua errotik aldatzeko aukera izango nuen, inori ezer aitortu gabe. Gure lagunek, lankideek ez zioten susmo txarrik hartuko nire laneko ardura berriari, pentsatuko zuten gorago nahi izango nuela igo, ardura handiagoak eskaini zizkidatela enpresan... Gainera, batek daki, bitartean, Martinena konpontzea ere litekeena zen: agian, denbora-kontua izan zitekeen, krisi txiki bat.

Itxuran eta inork ezer susmatu baino lehen joan behar nuen. Batez ere, Teresak edo Argik zeozer jakin edo sumatu baino lehenago. Telebistari eman behar nizkion eskerrak, une egokian Aupa Etxebeste! paratu zidalako.

Ez zara gaueko izar bakarra

Pragara joan aurretik ez nuen izeba Teresa agurtu, ez nintzen gai izan haren aurrean jartzeko. Ez zuen sinetsiko bi edo hiru urteko proiektu malkartsu eta arazoz betea abian jartzeko gure etxea uzteko prest egongo nintzenik, Martini buruz hitz egin beharko nioke eta azalpen korapilatsuetan endredatuko nintzen, seguru. Eman nahi ez nituen arrazoiak asmatu beharko nituen, gezurretan nenbilela igarriko zuen eta nire duintasun ondo mailatuak ez zidan horrelakorik baimentzen. Teresak, denboratxoa pasatuta, izango zuen gure banaketa ulertezinaren berri; beharbada, Martinek berak kontatuko zion nik entzun ez nuen azalpena,

baina ordurako urruti egongo nintzen, distantziak ematen duen abaroan, haren begirada zorrotzetik hainbat kilometrotara.

Argiri, ihes egin baino lehen, telefonoz eman nion nire bat-bateko erabakiaren berri eta zehaztasun handirik ere ez nion eman. Egun horretan bertan ez zidan kontrarik egin, ustekabeen harrapatu nuelako. Gero, Pragatik bertatik deitzen nion bakoitzean sermoia entzun behar izaten nion. Dena iruditu zitzaion arraro, horrexegatik nire diskurtsoaren hurrenkeran piezak falta balira bezala hitz egiten zidan; Martini buruzkoak, hain zuzen ere. Argik ez zidan zuzenean ezer galdetzen eta nik ez nuen Martinen konturik ateratzen. Ahizpa nagusiaren antzera mintzatzan zitzaidan, erdi haserre errepikatzen zidan ez zekiela zertan nenbilen hain urruti eta hainbeste denborarako, nire bizitza hankaz gora jartzen ari nintzela, zentratu behar nintzela, nituen lagun apurrak galduko nituela, ez nuela diru gehiago irabazteko premiarik: lana ez zela bizitzan zaindu beharreko guztia esateari ekiten zion, ezin nuela horrela jarraitu, begiak zabaldu behar nituela, bakarrik geldituko nintzela, bakar-bakarrik, eta bakardadea ez zela konpainia egokia, bizitza aldatu behar nuela ... Horrelakoak ziren gure elkarrizketa guztien hasierak, behintzat. Gai berberaren inguruko bakarrikzeta antzuak, nik gero eta isilago entzuten nituenak .

Gabonetako oporretan, Argi eta Jaumaren etxean egin nituen zortzi egun. Ez nuen gogorik Argiren aurrean paratzeko, ezin izango nuelako Martini buruzkoa saihestu, baina joan ezean, Argik antzemango zuen zer edo zer eta okerragoa izango zen nire gezur koldarra agerian geratzea. Hala ere, Argiri berari ere ezin izan nion egia aitortu, gertatutakoak eta Martinen mututasun tematiak min handiegia eragiten zidatelako eta ahotik ezin nuelako ezer atera ihesaldi ulertezin hartaz. Ez nion esan, berak aspaldi aurreikusten zuen bezala, ezer esan gabe, perfekzioa gauzatzen zuen Martinek laga ninduenik eta ez nekiela kapaz izango nintzen bakardadearen eta umilazioaren zulotik ateratzeko.

Ni lanari eta proiektuari buruz ibili nintzen luzaro berbetan, aukera aparta zela azpimarratzen, goi-mailako lanpostua zela, emakumeok horren alde egin behar genuela, lanean ez ginela gizonaek baino gutxiago, gure balioa erakutsi behar genuela, familiak eta sentimenduek ezin zutela mugatu gure lanean gora egitea. Martinek ahal zuen guztietan bisitatuko ninduela azpimarratzen nuen, berak lagundu zidala erabaki zamatsu hori hartzen, Martinek ondo ulertu zuela proiektu bazterrezina zela, bion artean adostutako parentesia zabaldu genuela, eta dena bukatutakoan, parentesia itxiko genuela eta era naturalean elkarrekin jarraituko genuela. Martinek berak izugarri animatu ninduela, gurea ez zela eten, Martinen “gaueko izar bakarra” izaten jarraitzen nuela eta nik “ilargia lapurtuko nukeela gauero” Paragatik edo beste leku batetik berari oparitzeko. Ez dut uste Argik ezer sinetsi zuenik, baina ez zidan kontrarik egin, lar ondo ezagutzen ninduen eta bazekien alperrik jardungo zuela.

Gogor ekin nion lanari, gorputz eta arima. Adostutako datan, proiektua zena errealitate bihurtzea nahi nuen, beste lorpen garrantzizko bat gehitu nahi nion nire curriculum

distiratsuari. Enpresaburuak, behin baino gehiagotan, nuen kemena eta oztopoak gainditzeko tinkotasuna gorai patzen zituen besteen aurrean baita lan-taldea bideratzeko irmotasuna miresten zuela ere. Hitz horiei esker bizi nintzen, ez nuelako beste ezer. Lagunik egiteko gogorik ez zitzaidan pizten inguruan talde bikaina nuen arren, eta, nire uharte bakartian gero eta hondoratuago nengoen handik irteteko aukerarik antzeman gabe. Pozik nengoen nire lorpenekin, baina gero eta kezkatuago proiektuaren amaiera gertu zegoelako. Pentsatzen nuen Pragako egonaldiak Martinen gaixotasunetik sendatuko ninduela, kapaz izango nintzela etxera bueltatzeko eta errealitateari parez pare begiratzeko eta gezurrekin bukatzeko. Hasi nintzen amesgaiztoak izaten, haietan Teresa agertzen zitzaidan begietara artez begiratzen, Argi betiko letaniari ekiten, Martin neska gazte baten eskutik paseatzen ... Gauetan esnatzen zitzaizkidan lozorroan beratzen izandako mamu guztiak, gero eta urduriago nengoen ur-jauzi erraldoi baten burrunba unean-unean berresten zelako nire buru gaixoan.

Proiektuaren azken txanpan eta lanez lepo geundenean, mila kontu lotzeko eta erabakitzeke denbora faltan geundela, Jaumaren dei batek zeharo aztoratu ninduen. Ezagutzen nuenetik, ez zidan inoiz deitu eta ahotsak ere ez zuen berea ematen. Euren etxera joateko erregutu zidan, Argi gaixotu zela eta on egingo ziola nire bisita batek, animatuko zela ni bere ondoan ikustean. Lasai hartzeko, pare bat aste barru joanda hobeto aurkituko nuelako, tratamenduaren txarrean zegoela, eta niri ere denbora-tartetxoa eman nahi zidala bidaia antolatzeke, Argiri berari ez esateke ezer, ez genuela ezusteko pozgarri hori zapuztu behar. Azalpenak ondo neurtuta eta pentsatuta eman zizkidan, horrek areagotu zuen nire ezinegona eta laneko estutasun guztiak bigarren mailara jaitsi ziren automatikoki. Ez zidan zehaztu gaixotasunaren konturik, baina nire berezko ezkortasuna hasi zen txarrean txarrena irudikatzen eta eraikitzen. Aurkitu nuena ez zen izan neure buru neurotikoak sortutakoa; hala ere, inpresionatu ninduen errealitateak. Argi akitu bat aurkitu nuen: kimioterapia-saio bortitzek jandako emakumea, hezur eta azal, ile arrastorik gabe eta ezer gutxirako adorerik ere ez zuena. Ikusi ninduean, negar egin zuen eta nik ere malkotan lagundu nion. Luze egon ginen besarkatuta ezer esan gabe, hitzik ez genuelako behar. Jaumak bakarrik utzi gintuen, eta, besteetan bezala, afaria prestatu zuen denontzat. Seme-alaben aurrean ez ginen gaixotasunaz mintzatu, nire proiektuaren buruhausteak eta lorpenak kontatu nizkien, euren eskolako kontuak plazaratu zituzten, landa-etxearen arrakastaz hitz egiten zuen Jaumak, Argi dena eta denei entzuten zegoen bitartean. Ez zuen ezer afaldu, gehienetan bezala, ez omen zuen gogorik. Umeak oheratu ostean, Argiren ondoan etzan nintzen; astiro kontatu zizkidan gaixotasunaren ipi-apa guztiak, tratamenduaren unerik latzena igaro berri zuela, pasatu behar zela, eustea zela bere egitekoa, itxaropentsu zeudela, itxura eskasa zuela baina ez zuela amore emango, hainbeste kostata eraiki zuen guztia ezin zuela utzi, bizitzen jarraitu behar zuela.

Han egin nituen egunetan, aurrekoetan ez bezala, Jaumarekin solasaldi luzeak edukitzeko aukera izan nuen, Argiri gaixotasunak neke handia sortzen ziolako eta ohean eta lotan egotea komeni zitzaiolako. Jaumarentzat dena zen Argi eta haren ingurukoa, ez zegoen beste hizpiderik. Sakon hunkitzen ninduen gizonaren samurtasunak ikusten nuenean Argi janzen,

garbitzen laguntzen, ohera sartzen, ohetik altxatzen, mokadurik goxoenak prestatzen ... eta batez ere, ikusten nuenean nola entzuten zuen, begiratzen zion, besarkatzen zuen...

Bartzelonatik bueltan, Pragara bueltatu nintzenean, nik espero baino dezente hobeto aurkitu nuen zorioneko proiektua. Ez zen ezer larririk gertatu ni ez nintzelako gainean egon, ez zen ezer atzeratu, eta aitortu behar dut benetako amorrua sentitu nuela. Ez nintzen nik uste bezain ordezkaezin eta beharrezko, ezta lanean ere. Horretan ere erratuta nengoen! Horrez gain, erabat hutsik sentitu nintzen, Argik inguruan zuen maitasun guztia ikusita, nire bizitza penagarria eta antzua iruditu zitzaidan. Lana eta lana, ez nuen beste burutaziorik beste ezer ez nuelako. Ez nuen familiarik, bikoterik, lagun hurkorik, eta askotan neure burua engainatzen ahalegintzen banintzen ere, nork ninduen ni zainduko, lagunduko, entzungo, begiratuko, besarkatuko? Zertarako nahi nuen irabazten nuen diru guztia ez banuen proiektu propiorik eta norekin disfrutatu? Zertan nenbilen?

Handik gutxira, lasaitasuna bueltatuko zidan lan- proposamen berria jaso nuen. Egin berri genuenaren antzeko proiektua zen. Beste bizpahiru urte egingo nituen Varsovian, eta, ez nekienez zer aurkituko nuen Euskal Herrian, eta egindako ihesari aurre egiteko nahiko indartsu ez nenbilenez, diru kontuak ondo lotu ondoren, zirkinik egin gabe onartu nuen proposamen berria. Halere, pozik egon beharrean, tristurak janda nengoen, barrutik arrakalatuta. Varsoviakoak, nire mamuak baretu zizkidan arren, ez zidan jakin-minik bizten, hori ere neketsu egiten zitzaidan: beste hiri bat, beste etxe bat, beste lankide batzuk ... Pragan egon bitartean, lankideekin harreman atsegin samarra garatzea lortu nuen, adiskidetasun moduko bat bakar batzuekin, eta akaso horri esker ez nintzen hain isolatuta sentitu, baina hori ere ez nuen aprobetxatzen jakin, eta, tokiz aldatzeko unean, gogoratu nituen Argik hainbestetan errepikatzen zizkidan hitzak; orduan konturatu nintzen nik neuk uxatzen nituela inguruan nituen pertsona guztiak, ez nintzela gauza harreman naturalak sortzeko eta elikatzeko. Konturatu, bai; baina beti bezala, berandu!

Nirekin jardun zuten lau taldekideei eskerrak emateko eta proposamen berri bat onartu nuela jakinarazteko, adeitasunak agintzen duenari jarraiki, afaltzera gonbidatu nituen. Guztiek zoriondu ninduten. Euren aurrean pozak zoratzen nengoela adierazi nien, beste erronka berri bat hiri ezezagun batean. Topa egin genuen behin, birritan, hirutan, lautan, barre egin genuen zoriontasunaren iragarki bat egitea enkargatu izan baligute bezala, berandura arte egon ginen pasatutako gorabeheretz hitz egiten, algaraka barrez eta elkarri txanda eman ezinik altu berbetan. Jatetxea itxi behar zutelako alde egin genuen, batzuek erretiratzeko ordua ere bazela adierazi zuten. Nik, ordea, ez nuen etxera joateko gogorik; aspaldiko partez berbetan jarraitu nahi nuen, barre egiten, dantza egiteko gogoia ere loratu zitzaidan... Andreei hurreratu zitzaidan adierazten inor ez zuela etxean zain, eta, birritan pentsatu gabe, besotik heldu nion. Andreeik, nik ez bezala, ondo ezagutzen zuen Pragako gau-giroa eta laster topatu zuen non sartu.

Nire lankideetan gertukoena bazen ere, ez nekien ezer bere bizitzaren gainean, ez nekien nongoa zen, ezta zein izan zen Pragara etortzeko arrazoia ere. Laster batean, baina, hasi zitzaidan kontatzen bikoteak bat-batean utzi zuelako hartu zuela dena bertan behera uzteko erabakia, urteetako harreman orekatu eta pozgarria egun batetik bestera txiki-txiki eginda geratu zela, azalpenik eta argibiderik entzun gabe. Etxe erdi hustu batean geratu zela emaztea noiz bueltatuko zain: egunak, asteak...

Harritu ninduen Andreeiri gertatutakoa eta nik bizi izandakoa hain pareko izateak. Ematen zuen nire bizitzaren pasarterik ilunena deskribatzen ari zela. Agerikoa zen azalpenik gabeko banaketa horrek eragin zion mina eta utzi zion arrastoa. Niri ez zitzaidan batere kostatzen izan haren lekuan jartzea, eta, konturatu gabe, negar-puxuluz bete zitzaizkidan begiak. Andreeik harrituta begiratu, eta galdetu zidan zein zen nire malkoen arrazoia, ea niri inoiz antzeko zerbait gertatu zitzaidan. Ez nuen jakin zer esan, une batean pentsakor gelditu nintzen, aitormenari ekiteko tentazioa izan nuen, nire barrua askatzeko; izan ere, modu naturalean hasteko aukera nuen, baina, azkenik, orduan ere, ezetz esan nion, ez nuela inoiz izan harreman luze eta egonkorrik. Tabernatik irten ginenean, ez zebilen inor kalean, haize epelak inguratu gintuen, nik besotik heldu nion, burua altxatu nuen eta zerua izar txiki eta handiz josita zegoela konturatu nintzen. Luze egon ginen paseo geldoan elkarri ezer esan gabe, Andreeiren etxe parean agertu ginen arte, begiratu zidan eta buruarekin baietz esan nion, atea zabaldu zuenean, belusezko sofa granate eder bat baino ez nuen ikusi begien aurrean.

Elkarren gorputzak ezagutzen pasatu zitzaizkigun gaueko ordu txikiak eta, eguna zabaltzear zegoenean, sofan etzanda, erdi jantzita eta izerditurik, nire oinak bere izterren artean korapilaturik, eta haren burua nire beso eta bularraren magalera egokiturik esnatu ginen. Egongelako balkoitik ikus nitzakeen, dirdirka, ezkutatzear zeuden bi izar bakarti. Martinengan pentsatu nuen eta, neure bostean, isilean, betiko agurtu nuen “ez zara gaueko izar bakarra, ez zara”.

Bizitzak bigarrenez eman zidan sofa granatea opari. Lehenengoa, Bilbon geratu da, betiko; eta, bigarrena, orain, hemen dago. Beharbada, gurekin eramango dugun munduko edozein txokotara bertatik gaueko izarrak ikusteko edo Etxebestetarren azken filma ikusteko.

LOREA

Soilik lerdoek uste dute isiltasuna hustutasuna dela. Inoiz ez dago hutsik. Eta, batzuetan, komunikatzeko modurik onena isiltasuna da.

Eduardo Galeano

Seiak eta hamar. Bost minutu geratzen zaizkit makinako kafe bero bat hartzeko, aurreko saioko gorabeherak ahazteko eta datorrenari eusteko nahikoa kemen biltzeko. Egia esan, gero eta gehiago kostatzen zait eguneko azken saiora behar bezala heltzea, ez inplikatzeko, neure lekuan egotea, besteen arazoak hoztasunez baloratzea, aholku neurritsuak eskaintzea, aukera egingarriak proposatzea... Ematen du eguneko saio bakoitzean energia apur bat galtzen dudala, zaharkitutako tutu pitzatuek urari ihes egiten uzten dioten bezala. Tamalgarria bada ere, ahul sentitzen naiz, indarge eta akitu. Urteetako esperientziak babestuko nauen geruza gero eta lodiagoa ehuntzen lagundu beharrean, bezeroen estutasun guztiakin osatutako mazkor gero eta zamatsuagoa itsatsi zait azalaren gainean. Askotan, narrasti astun eta geldo bat bihurtu naizela pentsatzen dut, bizitzak beherantz sakatzen nauela: tristuraren erdigunera. Ez dakit zer pentsatuko luketen nire lankide batzuek hau guztia jakingo balute, inoiz sentimendu-mataza honen guztiaren erdiaren erdia aitortzeko ausardia bilduko banu. Seguru nago ez luketela sinetsiko, baina hola nago: saileko burua, gure lanbideko urrezko arauari eutsi ezinik.

Seiak eta hamar. Bost minutu geratzen zaizkit Lorearen ikastetxetik gomendatu diguten psikologoarenera heltzeko, ilobak gustuko izango ez duen beste kontsulta batera eramateko eta bertan egingo dizkiguten galdera guztiari erantzuteko nahikoa kemen biltzeko. Egia esan, gero eta gehiago kostatzen zait eguneko eginkizun guztiak egitea, adoretzu mantentzea, inguruko txutxu-mutxuei kasurik ez egitea, Lorearen isiltasun tematiari eustea, irtenbide egingarriren bat irudikatzea... Ematen du istripua gertatu zenetik zeharo zahartu naizela, birritan edo hirutan tximurtutako paper-txatal bat bezala. Tamalgarria bada ere, ahul sentitzen naiz, indarge eta akitu. Bizi izandako urteek egoera lazgarri honetatik bideren bat topatzen lagundu beharrean, ezintasuna eta etsipena barru-barrutik barreiatu zaizkit. Askotan, indarra galdu duen hartza bihurtu naizela pentsatzen dut, bizitzak izugarri zigortu nauela: bakerik gabeko eremura kondenatua. Badakit nire inguruko guztiak ez nautela aurrera egiteko gauza ikusten, baina ez dago beste inor, Lorea eta biok bakarrik gelditu gara. Seguru nago askok pozik entzungo eta ulertuko lituzketela nire penak, baina ez diot inori aitortenik egin nahi, hola nago: amona zahar eta erdi gaixoa, umezurtz geratu berri den nerabearen kargu egin ezinik.

Gero eta gehiago gustatzen zait etxera heltzea, batez ere saio gogorren ostean. Gaurkoan, etorri den neskatoari ezin izan diot hitz erdirik atera, ez dit galdera bakar bati erantzun, bere

baitan gotortuta sartu da kontsultara eta berdin bukatu dugu; hurbildu ere ez natzaio egin. Haren begiradaren hoztasunak, ordea, leize baten esparru ezezagun eta deserosora bideratu, eta bertan eduki nau kateatuta saioak iraun duen bitartean. Haren isiltasunak menperatu du saioa. Ez dut asmatu, ez dut jakin saioa bideratzen. Amamak azaldu behar izan dit gertatutakoa, eta horrek ekarri dien ezbeharren soka luzea; hala eta guztiz, kontakizun lazgarri horren unerik gorenean ere ez du neskatoak jerarik egin, ez zirudien hezur-haragizkoa, panpina izoztua baizik. Bost hilabete dira eguzkiak ondo jotako Gaztelako errepide batean gurasoak eta ahizpa nagusia betiko hoztu zirenetik. Etxerako bidean zetozen, oporretatik: hegoaldeko argitasunez, itsasoz eta haizez blai. Baina hari finegia da zorientasuna, eta beste auto baten kolpea nahikoa izan zen hura eteteko.

Ordutik hona mutu dago Lorea. Ez du berbarik egiten, ez dio inori ezer esaten. Betiko lagunei ere izotz-begirada horrekin erantzuten omen die eta ingurutik uxatu ditu, amona zaharra lehengo errutinari eusteko gomendio antzuarri jarraitzen tematu den arren:etxetik institutura eta handik etxera. Baina kolpera itxi zaizkio ezpainak ilobari, bata bestari itsatsi. Badirudi, inguruko guztia urrun geratzen zaiola eta bera, besteongandik aparte, beste nonbaiten geratu dela, isiltasunaren erresuma idorraren erregina bihurtuta.

Amonari min handia egiten dio ilobaren isiltasun tematiak, duen bake apurra ebasten dio, ez diolako uzten istripua ahazten. Orain, zahartu ostean, ikasi behar izan du erabateko isiltasuna edozein garrasi zorrotz baino bortitzagoa dela, jasangaitzagoa eta suntsitzaileagoa; izan ere, etxeke ormak arrakalatu eta pitzatu ditzake erabateko isiltasunaren oihartzun izugarriak.

Gero eta gutxiago gustatzen zait etxera bueltatzea beste mediku, psikologo, irakasle edo sasi-aditu baten kontsultatik ezer garbirik atera gabe. Nazkatu samartuta nago: betiko galderak, betiko begirada harrituak, betiko irribarre penatuak, betiko... Hiru hilabete dira Lorearekin medikuz eta psikologoz eraikitako via crucis amaigabea egiten hasi nintzela; bata beste lankide hobere baten izena ematen dit, eta beste horrek beste batena. Askotan, Lorearekin zer egin ez dakitela pentsatzen dut, baina ezin dut etsi. Ez dakit gaurkoak pausorik ematen lagunduko digun, baina aurretik sentitu ez dudan zerbait antzeman diot haren begiradan eta galderak egiteko moduan. Baliteke emakume izateak laguntzea, baliteke emakume hori ama izatea, eta, horregatik, Lorearengana beste xamurtasun batekin hurbiltzea. Nirekin ere oso adeitsua izan da, uste dut berehala konturatu dela Loreak ez ezik neuk ere laguntza behar dudala.

Ez nuen inoiz pentsatuko laurogeita hiru urterekin, bizitzaren azken hondarrean, halako zigorrik jasoko nuenik. Amona alargun bati halako loteria makabroa tokatu zitzaiokeenik. Beste burutazio batzuk nituen, bizitza oso bestela bukatzeko planak. Izan ere, uda ostean alabaren etxera joango nintzen bizitzen, ez ninduelako neure kaxa moldatzeko moduan ikusten, zaintza eta deskantsua behar nituela adierazi zion alabari ospitaleko medikuak, bihotza mantsoago zebilkidala, botikei lasaitasunarekin lagundu behar geniola... Aitortu behar dut pozarren

nengoela alabaren etxera joateko eta egun osoko konpainia izateko, baina istripuak nire haritxoa ere eten zuen, nahiz eta laurehun kilometroko distantzian gertatu. Pentsatutako guztia lanbroa bezala desegin zen, bat-batean. Lorea eta biok bakar-bakarrik gaude: bera siltasunaren itzalpean, eta ni gelditzen zaidan indar apurraren garrean. Dena galdu dugu: Loreak, gurasoak eta ahizpa nagusia; nik, alaba bakarraren familiaren babesa.

Anttonek jakin-minez entzuten ditu sortzen zaizkidan buruhaustek Lorearekin saioa eduki ostean. Azken hiru hilabeteen eta astean birritan horixe izaten dugu afarietako hizpide, nahiz eta Lorearen eta haren amonaren penek mingostasun apur bat ematen dieten Anttonek maitasunez prestatutako arrain erreei eta ondo aukeratutako ardo zuriei. Lorearekin terapian hasi nintzenetik, kosta egiten zaio nire urdail makalari digestioa egitea, tristura murtxikatzea, eta txiki-txiki xehatuta ere, gorputz barruan gobernatzea. Anttonek inoiz ez dit aholkurik eman bere burua ez duelako horretarako gai ikusten, eta bere lanbidea oso urrutiko esparru batekoa delako; halere, zeharo hunkituta entzuten ditu kontaktzen dizkiodanak.

Loreak izoztuta jarraitzen du, eta amonak gero eta nekatuago onartzen ditu luzatzen dizkiodan proposamenak. Ez nuen uste hiru hilabeteen terapian egon ostean, hasierako puntu berean egongo ginenik, seguru nengoen pausuren bat emango genuela, Loreak berak mututasuna abandonatuko zuela eta bihotzeko orbanak sendatzen hasiko ginela. Loreak izoztuta jarraitzen du, eta, askotan, ez dakit zer egin, nondik abiatu, zer proposatu... Miresgarria da, ordea, amonaren kemena eta indarra ikustea, hau da, saio bakoitzaren aurrean jartzen duen itxaropena eta iloba isolamendutik irtengo den konbentzimendua. Amonak erakusten duena nahiko nuke nik, baina beldur naiz, beldur isila eta koldarra, ezkutuan ondo gorde behar dudana. Zerbaitek hautsi behar ditu Lorearen mututasun eta hoztasun horiek, zerbaitek astindu behar du barrutik eta garrasi egitera bultzatu, baina ez dakit zerk eragingo duen irrikaz espero dudan eztanda hori.

Badakit Anttonek pentsatzen duela, batez ere horrelakoak entzun ostean, biok biotara zorionekoak garela, eta hartu dugun erabaki guztietatik hoberena izan dela zoritxarrez beteriko mundu honetara umerik ez ekartzeko erabakia. Bizimodu antolatu, ordenatu eta baketsua dugu. Dena kontrolpean. Anttonek bizitzak horrelakoa izan behar duela pentsatzen du; horrexegatik, ez dugu ume negartirik zaindu behar izan, ezta nerabe petral baten ateraldi zitalik jasan ere. Gure lanbideetan aukera izan dugu gogor jokatzeko, lanpostu onetatik hobeetara igotzeko, ingurukoen artean miresmena eta izen ona sendo eraikitzeko. Bidaiatzeko astia ere hartu dugu, munduan dauden paraje liluragarri asko ezagutu ditugu eta urteetan begiak edertasunez bete ditugu.

Lorearekin egon ostean, askotan, lotsatuta eta nazkatuta irekitzen dut nire etxeko atea, ondoegi diseinatutako eta jantzitako etxea, eta orduan mundua gaizki antolatutako ekitaldi eskasa eta desorekatua iruditzen zait. Iluntzeetan, saio guztiak bukatu ostean, karpetak itxi,

gorde, eta nire paradisura egiten dut alde. Kontsultan utzi behar ditut han entzundakoak, ezin diet utzi etxerako bidea nirekin egiten, are gutxiago nire baitan lekutxo bat egiten. Niretzat ere, hoztasuna da urrezko araua, baina Lorea barruraino sartu zait, erraiak mugitu dizkit, obsesio bihurtzen ari da; akaso, hori dela eta Anttoni ere deskribatu behar diot txikikeriaz ondo hornituta saio bakoitzean gertatutakoa. Egunen batean asmatuko dut, negar egiten ikusiko dut eta lau haizeetara oihukatzen lehertuko da. Seguru nago egun hori heltzear dagoela, zerbaitek aterako duela lozorrotik, zerbaitek apurtu behar ditu mututasun eta hoztasun horiek, zerbaitek astindu behar du barrutik eta garrasi egitera bultzatu.

Goizeko hamabiak eta hamar dira. Bost minutu falta dira martxan dudan saioa bukatzeko. Kontsultako atean, baina, kolpe-hotsak entzun ditut: kax-kax. Amorrus begiratu diot erlojuari eta ziurtatu dut bost minutu falta zaizkidala. Berriz ere, kax-kax, behin eta beste behin, gero eta gogorrago eta gero eta indartsuago. Haserre nago. Ez dakit non egongo ote den kontsultako idazkaria, kafe-makinaren ondoan edo komunean egongo dela pentsatzen dut. Haserre nago, ezin dudalako saioa ganoraz bukatu. Eskerrak halako batean idazkariaren ahotsa entzuten ari naizen atearen beste aldean, norbaitekin bakarriketan. Atean, berriz ere, kolpe-hotsak: kax-kax oso fuerte, oso indartsu. Ahal izan dudan moduan bukaera eman diot saioari; nire onetik aterata egon arren, atsegin eta irribarretsu lagundu diot bezeroari ateraino. Begiradarekin norbait garbitzeko asmoz zabaldu dut ditzosozko atea, eta han Lorea ikusi dut idazkariaren berriketaldiari entzungor. Harritu nau han ikusteak. Loreak arratsaldeetako azken saioak izaten ditu, institutuan egon beharko luke. Ingurura begiratu dut amonaren azalpena entzun nahi dudalako, baina ez dut ikusten. Lorea nire parean dago bakarrik. Amona ez da ageri. Ez dakit nola moldatuko garen, halere saiatu naiz azaltzen erratu dela, arratsaldean etorri behar duela, institutuan egon behar duela. Zergatik etorri den galdetu diot, zer pasatu den jakin nahi dut, eta orduan mila puska nimitan kraskatu zaio begietako izotza eta negar-malkotan ito da. Harrituta begiratu diot. Ez dut ezer ulertzen, eta begiak niretan iltzatuta amonaaaaaaaaa oihukatu du behin, eta amonaaaaaaaaa beste behin, eta beste behin gero eta gogorrago, indartsuago. Labankada bat baino mingarriagoa egin zait aspaldi espero nuen Lorearen garrasia. Zerura begiratu dut azalpen eske; baina bai, mundua gaizki antolatutako ekitaldi eskasa eta desorekatua baino ez da. Izutu nau haren bakardadearen tamainak. Neure kontra estutu dut Lorea eta giltzaz itxi dut kontsultako atea.

Etxera abiatu gara. Bidetik, eskua estutu dit eta pare bat aldiz gelditu zait begira. Badakit zer galdetu didaten Lorearen begiek. Ez diot ezer esan, baina oso argi daukat erantzuna. Mututasunaren eremuan ikasi dugu elkar ulertzen. Nik ere izerditutako eskutxoa estutu diot. Ez dakit Anttoni zer irudituko zaion, baina uste dut badela garaia kontrolpetik kanpo bizitzen ikasteko.

KARIBE ETXEA

Teilatu bat

Gurea ezkontza tristea izan zen. Herriko eliza nagusitik irten ginenean, ez zen entzun algararik, ez zen ikusi arroz zaparrada zuririk, ez zen sortu –guri muxuak emateko irrikan– lagun ilara zalapartatsurik, ezta –benetan eta bihotzez– zoriontsu izan gintezen desioarekin gure ingurura senitartekorik urreratu ere. Herriko eliza nagusitik irten ginenean, Luis Mariren arreba biak, koinatuak, euren bost seme-alabak, eta nire senar berriaren urteetako adiskide mutilzaharra izan ziren –hotz eta behartuta– hurbildu zitzaizkigun bakarrik.

Luis Mari, ordea, pozak zorutzen zegoen; mutiko nerabe txoro baten emozioak betetzen zion arima eta argitzen zion begirada. Luzaroko bakardadea gure ezkontzarekin betiko uxatuko zuela pentsatzen zuen, eta horrek sakon sentiarazten zuen zoriontsu. Betiko amaituak izango ziren otordu bakartiak, domeka arratsaldeetako etxeko isiltasun zamatsua, armairu erdi hutsak eta ohe-kiderik gabeko gau antzuak. Gurasoak hil zirenetik, baserria handiegi gelditu zitzaion; horregatik, goiko pisuko logelak eta egongela handia itxita zeuzkan. Bakar-bakarrik arrebak etxea txukuntzera joaten zitzaizkionean –hamabostean behin eta txandaka– zabaltzen ziren goiko aldeko saretak eta leihoak. Neba mutilzaharrak sukaldearen ondoko gela txiki batean bilduta zeukan behar zuen apurra: ohe estu bat, ispilurik gabeko armairua, aulki herren bat eta mesanotxearen gainean gurasoen ezkontzako erretratu zimurra; hau da, sukaldea, komun txikia eta logelaren azalerak batuta, berrogei metro koadro eskasera mugatzen zen Luis Marinen unibertso iluna.

Arrebek errietaka egiten zioten hasierako diosala eta berdin irteten ziren haiek egin beharreko guztia bukatzen zutenean. Ez zitzaien gustatzen nebaren bizimodua, eta etengabeko marmar bakartian ibiltzen ziren astinketan eta garbiketan. Luis Marik ez entzutearena egin behar izaten zuen. Hala ere, sarri askotan mailu handi baten indarrez buru barruan behin eta berriro errepikatzen zitzaizkion arrebek esaldi zorrotzak: “eskerrak gure ama zenak ez zaituen ikusten”, “kaleko eskaleen tankeran bizi zara”, “duintasuna galdu baduzu, sikan itxurak egin familiagatik”. Bazekien Luis Marik ekaitza baten moduko zaparradari eutsi behar ziola ahalik eta isilen, bazekien arrebbei eskertu behar ziela ahalegina eta lana, bazekien bere bizimodu ganorabakoa zuzentze aldera egiten zutela egiten zutena; baina nekatuta sentitzen zen, bere barne bakardade tristean isolatu nahi zuen, ez zuen laguntza gehiagorik nahi, bere bizitza –ona edo txarra– bizi nahi zuen, bakean.

Argi gorri bat

Larunbat iluntzeetan, dutxatu eta arrebek garbitutako arropa berrienak jantzi ostean, herrira abiatzen zen baten batekin egoteko esperantzan. Gehienetan, Esteban izaten zen bere konpainia bakarra, urteetako berbalaguna. Luis Mari gizon estimatua zen herrian, bere adineko gehienek agurtzen zuten, jatorra eta langilea zela uste zuen jendeak, baina gaztetako lagunek beste bizimodu bat zeukaten: andrea, seme-alabak, beste obligazio batzuk... eta Luis Mari ez zuen lekurik inoren bizitzan. Horregatik, plaza ondoko tabernetan pare bat txikito edan ostean, Estebanen alboan pilota-partida telebistan ikusi ondoren, berriz ere etxerako bidean jartzen zen hurrengo zapatu iluntzera arte. Lantzean behin, tristurak gogor kolpatzen zuenetan, bortitz eraso egiten zionetan, Pettit Maison izeneko etxean sartzen zen burumakur eta erdi lotsatuta. Farola single gorri batek argitzen zuen herritik kilometro pare batera zegoen etxe bakartia, han emakume eder eta gazteekin egoteko aukera izaten zuen. Baina, ez zen ausartzen. Ez zen inorekin berbetan hasten, nahikoa zuen begiratzearekin. Gustuko zuen emakume haien paparalde irekietan –inor konturatzen ez zenean– begirada sartzeari, ipurdi biribil oparoen kulunkan amets egitea, ezpain gorri distiratsu haiei so egarria asetzea. Etxe barruko taberna moduko barran iltzatuta gelditzen zen, koñaka eskatu, eta edan bitartean, han egon. Besteek bizitzen zutena ikusten egon, besteen bizitzaren ikusle izan.

Gabonetako larunbat batean, Luis Mari Estebanekin elkartu zen. Ohiko txikito pare hartu zuten inguruko alaitasun behartuari begira, eta beste bi hartu zituzten ospatzeko ezer izan ez arren, eta beste bi haiek beste bi hartzeko gogoia biztu zuten zorientsu egoteko eskubidea bazutela aldarrikatu eta gero. Orduan, alkoholaren langa gainditzeak ematen duen ausardiaz baliatuta, Estebanek aitortu zizkion Pettit Maisonen pitean-pitean izaten zituen abenturak. Luis Mari ez zekien horiek guztiak erdi asmatuak edo benetakoak izan zitezkeen; zirenak eta –seguruenik– ez zirenak bota zizkion, baina denak handiarekin aurrera. Entzundako kontu guztiek adorea eman zioten –aurretik, inoiz ez bezala– beste intentzio batekin argi gorri batek argitzen zuen etxe isolatu hartan sartzeko.

Bertan zeudela, aurretik ezagutzen ez zuen neska beltzaran eder bat inguratu zitzaion, tratua egin zuten, goiko pisura igo, eta, ordura arte ezagutu gabeko lasaitua eman zion zahartzen hasita zeukan bere gorputz baldarrari. Egun horretatik aurrera, asteak ematen zituen emakume haren esku luzeekin amets egiten, haren adats kiribilen artean atzamarrak kateatuta zituela pentsatzen, haren azal beltzaranaren usaina gogora ekartzen. Horrela, astero, zapatu guztietan elkartzen hasi ginen Luis Mari eta biok

Zuri izandako etxe bat

Aste batek beste bat ekarri zuen, zapatu batek beste bat, eta beste bat..., eta udaberriko astegun batean herrira jaitsi behar izan zuen Luis Marik, ezinbesteko eginkizunak zituelako bertan; bukatu zituenean mandatuok, mokadu bat hartzeko betiko tabernan sartu zen. Bihotza irauli eta saltoka hasi omen zitzaion saihetsen kartzelatik ihes egin nahian, han ikusi ninduelako katilu ketsu baten aurrean, eta, beste ezer pentsatu gabe, gerturatu zitzaidan.

–Egun on, Margarita. Asko pozten naiz zu ikusteaz. Hau ustekabea!

–Egun on, Luis Mari. Ni ere pozten naiz eta benetan eskertzen dizut hurbildu izana, baina ez dut uste komeni zaizunik nirekin egotea jendearen aurrean. Hau herri txikia da eta hemen inork ez dit kalean hitz egiten, inork ez nau agurtzen, ezta ezagutzen ere, nahiz eta guztiek dakiten nor naizen, eta non egiten dudan lan. Uste dut hobe duzula beste mahai batean jartzea, badakizu zenbat hitz egiten duen jendeak...

–Ez zait inporta, ez naute txutxu-mutxuek beldurtzen; eta gainera oso gustura hartuko nuke zerbait zure konpainian.

Luze egon ginen berriketan. Bere bizitzaren zenbait gorabehera kontatu zizkidan, zelan joan zitzaizkion urteak igarri gabe, zenbat ordu ematen zituen bakarrik egunero-egunero baserri handiegi hartan, eta zein galduta zeukan bizitza aldatzeko itzaropena. Nik ere kontatu nion lau bat esaldira mugatu nahi izan nuen nire biografia urria. Hala eta guztiz ere, bitxia zen egiten ari nintzena, nire bezeroei ez nielako ezer aitortzen nire iraganaz; baina, beste inor ez zen herriko plazako tabernan –inoiz ez, eta are gutxiago egun argitan– nirekin jesarri zerbait hartzen. Ordubete egongo ginen guztien begiradapean; berandutu zitzaigunean Luis Marik ordaindu zuen biona, eta, Land Roverrean sartuta, eraman ninduen etxera. Hurrengo asterako hitzordua –egun eta toki berean– jarri genuen, biok genuelako barrua askatu beharra, hitz egin beharra. Konturatu gabe, oso era naturalean, hasi ginen eroso egoten elkarrekin. Hasierako ordubetea luzatu genuen, eta nire egun librea elkarrekin pasatzen hasi ginen zuri izandako etxe erdi itxi batean, sukalde ondoko gela txiki bateko ohe estuan.

Aste batek beste bat ekarri zuen, ostegun batek, eta beste bat...eta uste dut poliki-poliki hasi nintzela Luis Mari ezberdin ikusten, herriko beste gizon guztien aldean ausartagoa iruditzen zitzaidan, ez zegoelako herri txatxar hartako esames ustelen menpe. Egia zen ez zela nire ametsetako gizona: nire ondoan urte piloa zeuzkan, kilotan ere ezberdintasun esanguratsua zegoen bion artean (sabelaldean, batez ere), urteek bakandutako ile fin batzuk baino ez zeuzkan, lanak zakartutako esku handituak eta betazpi saonek azpimarratzen zituzten ilusioa galdutako begiak. Laburbilduz, ez zeukan zerikusik nire ametsetako Waldorekin.

Urrutiko herri bat

Behin ezkontuta, zuri izandako baserri zaharrari karibeko etxe baten itxura eman genion laster batean. Biok jarri ginen lanean: goiko pisuko leihoak eta ateak zabaldu genituen; pintura berdez, laranja, granatez eta urdinez pintatu genituen hormak; lorez eta landarez bete nituen barruko gelak eta etxeko balkoi luzea. Bion logela goiko pisuan jarri genuen, Luis Mariren arropa zaharrak zaku batean sartu eta bota nituen, ispilu handi bat eskegi genuen ohearen parean, eta horrela hasi zen –gainerako guztien harridurapean– gure bizitza berria.

Luis Mariri esker irten nintzen hainbeste gorrotatzen nuen etxe hartatik, gainera berak zuen guztia eman zidan. Eskertuta sentitzen nintzen; xamurtasunez begiratzen nion nire senarrari, bere ondoan bizitzea benetan erraza zelako, baina ezin nuen uxatu Waldoren irudi tematia nire burutik, batez ere Luis Mariren gorputza ukitzen behartuta sentitzen nintzen bakoitzean.

Ezkontu eta urtebetera, familia ikustera joan nahi nuela esan nion Luis Mariri. Aspaldiko desioa zela aitortu nion, bost urte zirela karibe aldetik joan nintzela eta gure ama bizirik ikusi nahi nuela, ahizpekin egon, loba jaioberriak ezagutu, nire herria berriz zapaldu. Primeran ulertu zuen nire nahia eta lagundu zidan bidaia prestatzen, guztientzat bion partez opariak erosten, eta diru kopuru dezentea eman zidan etxekoen artean partitzeko. Bidaia hamabost bat egunekoa izango zela adostu genuen; itxura batean nahikoa egin nahi nuen guztia egiteko. Baina ez nion esan han gelditzeko erabakia hartua nuela, ez nintzela inoiz gehiago bueltatuko, familiaren hutsunea handia zelako, eta batez ere Waldoren faltak gaixotu-erotu behar ninduelako. Nire gorputzak berea behar zuen, nire azalak bere eskuen dantza sentitu behar zuen, ezin nuen maitasunik gabe bizi, Waldo behar nuen arnasa bueltatzeko, bost urtean gordetako maitasun itoa kanporatzeko, eta gorputza bizirik nuela egiaztatzeko.

Dirua egiteko esperantzan etorri nintzen eta ezin nuen ezer gabe bueltatu. Ez nion Luis Mariri minik egin nahi, baina ezkontzeko eskatu zidanean, argi ikusi nuen nire zulotik irteteko aukera nuela, herrira abiatzeko dirua aitzakiarik gabe emango zidala, eta Waldorekin utzitakoa berreskuratzeke beste unerik ez nuela izango. Waldok nire zain egongo zela agindu zidan, eta jakin banekien horrela izango zela, baina ez bizitza osoan. Bestetik, ezin nuen gehiago itxaron. Banekien Luis Mari lur jota geldituko zela nire ihesaren ondoren, horregatik ezin nuen denbora gehiago bere ondoan eman, ezin nuen luzaroago engainatu, gainera nire sentimenduak ere gero eta nahastuago nituen, esker ona maitasun moduko batekin uztartzen hasia nintzelako.

Herrira heltzea izugarria izan zen. Berriro sentitu nituen karibeko berotasuna eta musika bihotzean eta erraieran itsatsita. Poztasun, musu, besarkada eta barre zaparrada bat izan zen nire itzulera. Zoriontsu nengoen ama eta familiakoak ondo zeudelako, eta, nik bidaltzen nien diruari esker, bizitza duina zeramatelako; baina egun batek beste bat ekarri zuen, eta beste bat, eta senitarteko gehienak ni ikustera eta agurtzera etorri ziren, ezagunak eta lankide ohiak, auzokoak eta ingurukoak, baina ez zegoen Waldoren arrastorik. Hamabost egunak igarri gabe

pasatu zitzaizkidan, inork ez zidan galdetzen noiz bueltatuko nintzen, edo zein asmo nuen. Hasierako emozio-zurrumbiloa baretu zen, eta eguneroko bizitzak bere bidea hartu zuen; nik espero ez nuena, ordea.

Baneramatzan pare bat hilabete nire herrian, hiritik Jenifer –lehengusina eta gaztetako laguna– ni ikustera etorri zenean bere lau seme-alabekin; elkar ikusteak poztasun itzela eman zigun bioi, aspaldiko kontuak ekarri genituen gogora, aspaldiko ibilerak eta amodioak, barre algaraka jardun genuen kontu kontari kotxe trauskil baten klaxonak dena eten zuen arte. Jeniferrek alde egin behar zuen, senarra zeukan kotxe barruan zain. Nik, baina, ezagutu nahi nuen Jeniferren gizona, nahiz eta berak kontrako imintzioak egin, nahiz eta presa handia zutela azkar eta urduri antzean errepikatu. Ez nion kasurik egin, noski; etxe aurreko espaloira abiatu nintzen, eta, kotxera hurbildu ahala, pausuak moteltzen hasi zitzaizkidan, bihotzak errementatzeko moduko abiadura hartu zuen bitartean. Waldo ez zen kotxetik atera, irribarre derrigortu batez begiratu zidan, eta burua makurtu zuen. Ez zidan hitz bakar bat luzatu, ezta maitasun keinu txiki bat egin ere. Jenifer eta haien lau seme-alabak hartuta, alde egin zuen kortesiazko “zer moduz” xume bat esan gabe. Une hartantxe ulertu nuen zergatik ez zituen nire gutunak erantzun, konturatu nintzen ez zela nire itzuleraren zain egon, argi ikusi nuen Waldoren maitasun hitzak hasieratik izan zirela ustelak eta ez nintzela inoiz ezer izan bere bizitzan.

Argitasun gabeko karibea

Bat-batean nire karibeak kolorea galdu zuen, dena ilundu zen, guztiak galdu zuen interesa niretzat, ez nuen gelditzeko arrazoirik eta gelditzen zitzaidan diru apurrarekin ezin nuen pentsatu zer egin: alde egin edo bertan geratu. Ez nekien non zegoen nire lekua, lotsatuta eta erabat zaurituta sentitzen nintzen, nekien gauza bakarra zen gaizki jokatu nuela nire bizitzaren karta-jokoa: gaztetan, maitasuna nuenean, dirua egiteak bultzatuta, ozeanoa zeharkatu nuen; urteak pasatuta, dirua eta erosotasuna lortu nituenean, gaztetako maitasunaren bila berriro ere ozeanoa zeharkatu nuen. Beste bati gertatutako pasadizo xelebrea zela ematen zuen; baina, ez; nire bizitzaren laburpen mingarria zen.

Gaixotu nintzen, ahuldu, makal eta indarrrik gabe gelditu nintzen. Amak xamurki zaintzen ninduen, ezer galdetu gabe; medikua etortzen zen ni ikustera, hiru egunetik behin; familiakoek egiten zidaten konpainia, egun guzti-guztietan. Inork ez zekien zein izan zitekeen nire gaixotasunaren funtsa, baina klima aldaketari, larregizko beroari eta beste zenbait txepelkeria inuzenteri egozten zioten nire ondoeza. Nik bitartean, bizitzari aurrez aurre begiratzeko kemena galdu nuen, eta gaixotasunean aurkitu nuen babesa: ez nuen ezer egiten, ez nintzen ezertaz arduratzen, ez nuen kalera irteteko gogorik eta gero eta gusturago onartzen nituen etxekoon mimoak eta ferekak.

Goiz batean, ohean nengoela, amak Euskal Herritik heldutako eskutitz bat luzatu zidan. Atzealde zuriari begiratu nion eta, lozorrotik kolpean esnatuta, berehala urratu nuen gutun-azala.

Margarita, maitea:

Badira zenbat hilabete gure ingurutik alde egin zenuela, eta bihotz-bihotzez espero dugu zu eta zure familia guztia ondo egotea.

Carmenek eta biok asko pentsatu dugu zuri gutun hau bidali aurretik, baina kontuak bere onera eta baretu beharrian, kontrarako bidea hartzen ari dira. Zuk alde egin zenuenean, eta Juan Marik ez zinela bueltatuko ulertu zuenean, erabat gaixotu zitzaigun: ez zuen ezertarako ganorarik, baratzako lanak bertan behera utzi zituen, egun osoak ematen zituen ohean etzanda, ez zuen jaten eta ez zen larunbatetan herrira jaisten; laburbilduz, galdu zuen bizitzeko adorea. Hasieran, pasatuko zitzaiolakoan geunden, denbora kontua zela pentsatzen genuen. Baina orain dela denbora gutxi hasi da zure itzulera prestatzen, berak dio laster bueltatuko zarela eta etxea zure gustura jarri behar dugula: landare ximelak kendu eta berriak jarri behar ditugula etxeko bazter guztietan, dena garbi eta txukun egon behar dela.... Behin eta berriro esan digu telefonoz deituko dizula, zehatz-mehatz jakin behar duela noiz itzuliko zaren zure bila aireportura joateko. Ikaratuta gaude, eta ez dakigu zer egin.

Guk bagenekien zuen ezkontza gezur hutsa zela, zure moduko emakume bat ezin zela gure Luis Marirekin maitemindu, eta espero genuen egin zenuenaren antzeko zerbait gertatzea. Badakizu guk ez genuela ondo ikusten zuen artekoa, are gutxiago Luis Marik bere ondasun guztiak zurekin partekatzeko paperak egitea, baina ezin izan genion hori burutik atera eta horrela gertatu zen gertatu zena.

Nahikoa min egin diozu, diguzu guztioi. Orain, Luis Mari majo izorratu ondoren, pozarren egongo zara zure etxekoekin, baina txiripa batez Luis Marik zurekin hitz egitea lortuko balu, arren, ez eman esperantza faltsurik, ez esan itzultzeko asmoa duzunik, berarekin akordatzen zarenik edo antzekorik. Gu bagabiltza ahaleginak egiten begiak behingoz zabal ditzan, baina alferrikakoa da guk esaten diogun guztia eta horregatik erabaki dugu zuri gutun hau idaztea, seguru gaudelako gure neba ahaleginduko dela zurekin berba egiten. Jakin badakigu aurpegira barre egin diguzula, dirua eman zizula Luis Marik bidaia egiteko eta etxekoei eramateko, baina ez dugu zurrunbilo beltz honetan beherago jaitsi nahi, duintasun apur bat behar dugu eta Luis Mariri zutaz duen irudi faltsua ezabatu behar diogu.

Ez pentsa, ordea, zurekin gaizki jokatu nahi dugunik eta egin diguzuna ordainarazi nahi dizugunik, hori dela eta, berriro gure bizitzetan inoiz sartuko ez zarela ziurtatzen badiguzu, prest gaude diru-kopuru bat bidaltzeko hilabete guztietan. Azken batean, familiakoak ere bagara. Ulertuko duzulakoan:

Zure koinatak: Carmen eta Elvira

Karibe Etxea

Carmenen eta Elviraren artean zintzilikatu dute Karibe Etxea zabaldu zeneko urteurreneko jaiaren argazkia. Jai bikaina prestatu genuen denon artean, inguruko herrietako jende mordoa etorri zen, gure alkatea ere bertaratu zitzaigun, ohiko bezeroak eta ez horren ohikoak, familia osoa eta gure lagun guzti-guztiak. Argazkian denok agertzen gara irribarrez: Luis Mari eta biok beheko ilararen erdian, eta, gure albo banatan, Carmen eta Elvira beraien senarrekin.

Nork sinetsiko luke holakorik orain dela hiru urte, Kubatik esku hutsik bueltatu nintzenean? Nork pentsatuko luke inguruetako jatetxerik preziatuena Luis Mariren baserri zaharberritua izango zenik? Nork antzemango luke Elviraren senarra, lanik gabe geratu zenean, Luis Mari eta bion langilea izango zenik? Nori okurrituko litzaioke herriko putetxean lanean egondako emakumeak hain negozio biribila sortuko zuenik? Pentsaezina! Karibe Etxearen bigarren urteurrenean, herriko alkateak berak itxuraz prestatu gabeko diskurtso txiki bat bota zuen nire kemena gorai patzen, krisi garaietan irudimena erabili behar zela, Luis Marik eta biok erabili genuen moduan, ditugun baliabideei etekina ateratzen ikasi behar zela...

Barregarria da, ezta? Pettit Maisonen lan egiten nuenean, Luis Marirekin ezkondu nintzenean, Kubatik errudun eta lotsatuta bueltatu nintzenean, inork ez ninduen aurpegira begiratzen, ez nuen ezertarako balio, ez nintzen inor, ez nuen lagunik, eta Luis Mariren familiak sano gorrotatzen ninduen. Orain, ordea, Karibe Etxeko señora naiz, Karibeko sukaldaritza Euskal Herrikoarekin uztartzen asmatu duen jatetxeko arima eta buru, askoren eredu, emakume ekintzailea...

Harrigarria da, ezta? Bai, harrigarria hainbeste lagun edukitzea, Luis Mariren etxeok eta herrikoek, orain, horren ondo ni onartzea! Ahalegintzen ari naiz egunero-egunero sasoi bateko irainak eta isekak barkatzen eta ahazten, erraza ez den arren. Luis Marik laguntzen dit horretan, inork baino hobeto ezagutzen duelako barkamenaren artea. Bere ondoan onartu ninduen eta, egun, maite nau ezer leporatu gabe, ezer galdetu gabe, bakarrik esan zidan luze egin zitzaizkiola kanpoan pa Nik, gelditzen zitzaion diruarekin, jatetxe hau jartzeko ideia eta kemena eman nizkion, eta horri esker herriko mutilzaharra izatetik modako jatetxe dotore baten jabe izatera pasatu da; tristuraren putzu iluna betiko atzean utzi du, eta erakutsi nahi izan diot Karibearen bizitasunaren alaitasuna zuri izandako baserri zahar batean ere gauzatu daitekeela.

REMEDIOS

– Remedios, Remedios dut izena.

Hori esan, eta, zerbait esango niolakoan, begira-begira gelditu zitzaidan. Beharbada, mutututa gelditu nintzelako errepikatu behar izan zidan bere izena: astiroago, hobeto ahoskatuta, eta azkeneko pluralgilea dezente luzatuta.

– Re-me-di-osssssss naiz.

Zorioneko izena hirugarrenez errepikatu zidanean, burua makurtu nuen eta barrura sartzeko imintzinoa egin nion, hitzik esan gabe. Beste behin ere, lo gelditu nintzen egongelako besaulkian eta ateko txirrinak kolpean esnatu ninduen. Nire itxura errukarriaz lotsatu nintzen, iruditu zitzaidan nire betazpi urdinkaretan eta bekokiko zimurretan iltzatu zuela bere begirada gazte eta freskoa, konturatu zela banuela bizitzan zer konpondu, zer aldatu; eta ahoskatutako ese luzatuak arindu zezakeela gainean neraman zama., Ez, ez zen erratu. banuen erremedio bat baino gehiagoren premia. Ez zitzaidan, beraz, gaizki etorriko erremedio sortzaile eta banatzaile bat nire inguruan, erremedioak pluralean zabalduko zituen norbait.

Etxeko egongelara sartu, eta aurrez aurre eseri ginen biok. Egoeraren berri eman nion, gehiegi zehaztu gabe, ez bainekien lana komeniko zitzaion ala ez, eta, kanpoko inoren jakin-minik sortzen ez zuten arren, gure bizitzaren gorabeherak ahalik eta gordeen mantendu nahi nituen. Remedios hasiera-hasieratik gustatu zitzaidan, eta ez bakarrik bere izenak eragin zidanagatik. Ez dakit zer izan zen, baina aspaldiko partez lasaitasun apur bat sentitu nuen biok berbetan ari ginela. Erraza izan zen tratua ixtea. Bazuen esperientziarik, lan egiteko gogorik; bazuen entzuteko pazientziarik, eta, hurrengo egunetik bertatik, gurean hasteko aukerarik.

Iluntze hartan, Remediosekin hitz egin ostean, amaren etxetik bertatik deitu nion Martini, ez ohiko alaitasunez. Bera ere bazezilen baretzeko premian, eta gure bizitza hobetuko zuen elkarrizketaren zehaztasun guztiak eman nahi izan nizkion ahalik eta lasterren.

Gure ama gaixotu zenetik, oso ordu gutxi egiten nituen etxean. Lanetik irten, eta amarenera joaten nintzen gure etxea zapaldu gabe; arratsalde osoa ematen nuen bertan. Amari afaria eman ostean eta oheratu ondoren, etxera joaten nintzen, gaueko hamarrak aldera: lur jota eta ezertarako adorerik gabe. Gehienetan, seme-alabak lokartuta aurkitzen nituen eta Martin eguneroko nekeak eragindako erneguan murgilduta. Ohitu ginen saltsa lodian egositako isiltasuna afaltzen, harik eta nire neba-arreben telefono-deiek mahaitik altzarazten nindutenera arte. Eguneroko, urrutiko ardurak arintzen eta lasaitzen ahalegintzea ere tokatzen zitzaidan, ni nintzelako amaren inguruan bizi zen bakarra. Ezin dut esan amaren zahartzaroko

bakardadeak eta ondorengo gaixotasunak kezkarik eragiten ez zietenik, ahal zuten bakoitzean etorri etortzen zirelako eta laguntza eskaintzen zidatelako, baina jakina da zaila dela bostehun kilometrotik gorako distantziatik ezer konpontzea.

Sei hilabete neramatzan martxa zoro horretan, eta, hasieran dena kontrolpean nuela uste nuen arren, pare bat hilabetera konturatu nintzen nire bizitzako oreka ahulari arrakala izugarri sakonak ageri zitzaizkiola. Gure egunerokotasuna leizez eta amildegiz betetako bide zulatua baino ez zela, nik neure borondatez eta kostatzen zela, zeharkatu nahi nuen bidea, baina Martinek eta gure seme-alabek ez zuten parte hartu erabaki horretan, eta uste dut eurei malkartsuegia eta, askotan, zentzugabea iruditzen zitzaizela.

Dena aldatu zen edo aldatu behar izan zen. Ez nintzen umeen bila eskolara joaten, ez nien laguntzen etxerako ariketak egiten, ez nintzen joaten zapatu goizeko saskibaloia edo futbol partidetak, ez nituen medikuarenera nik eramaten, ez nien afari gozorik prestatzen, ez nituen haien eskolako gorabeherak entzuten. Den-dena Martinen esku laga nuen, amaren egoeraren latzaz jabetuko zirelakoan, baina umeak txikiegiak ziren hori guztia ulertzeko eta bakarrik sentitzen zuten amaren falta itzela. Martinen iritziz gehiegizkoa zen nire familiarekin nuen ardura etengabea eta atxikimendua. Ez zituen normaltzat jotzen, eta batez ere amarekin nuen obsesioa. Akaso, gurasoak gaztetan galdu zituelako ez zuen nire jokabidea ulertzen, ez zidan gauza handirik esaten ezta ezer leporatzen ausartzen ere, baina haren konplizitate eta maitasuna inoiz baino gehiago behar nuenean, berak entzungorraga erantzuten zien nire laguntza-garrasi mutuei. Ondo ezagutzen genuen elkar.

Martin eta gure ama ez ziren inoiz ondo konpondu, nahiz eta, gehienetan, nire aurrean itxurak egiten ahalegintzen ziren. Ezkondu aurretik, amak ez zidan inoiz ezkutatu ez zuela batere gustuko: gizon azala iruditzen omen zitzaion, kanean eta hortik zehar firin-faran ibiltzeko modukoa, ez ganorazko familia bat sortzeko egina. Esaten zidan bizimodua gogorra dela eta gizon gabeko senar batekin arrastaka baten emango nuela bizitza osoa, hainbeste mutil egonda hobe nuela begiak ondo zabaltzea. Ez zuen ezertarako Martin aintzat hartzen. Egiten eta esaten zuen guztia xelebrekeriekin edo inuzentekeriekin uztartzen zuen; gainera, grazia zipitzik ere ez zion egin jakiteak Bilboko Zazpi Kaleetan ireki berria zuela denda bat antzinako eta bigarren eskuko liburuak saltzeko, jakin zuen une beretik denbora-pasa erromantikoaren etiketa jarri zion bere lanbidea izango zen horri, etekin urriak emango zituen negozioa, eta inolaz ere etxe batean sor zitezkeen gastuei aurre egiteko modukoa.

Ezkondu ostean, euren artekoa ez zen batere samurtu. Hori dela eta, ustezko errespetuan oinarritutako hostasun gero eta sendoagoko horma ikusezina altxatu zuten bien artean, baina, jakina, bakoitzak bere aldetik. Hortaz, laga ninduten gustuko ez nuen eremu arrotz eta ozpelaren erdigune ezerosoan, ez batera ez bestera egin ezinik: alde batetik, sei seme-alabaren ama alargunaren bakardadea arindu nahian; bestetik, maite nuen gizon zoro horren emazte

izateko ahaleginean. Zaila zitzaidan biek tenkatzen zuten sokaren gainean dantzatzea, oreka mantentzea eta mutur batetik bestera pasatzea. Ez zidaten laguntzen, ez zidaten eskurik luzatzen, ezin ninduten konpartitu; izan ere, ez bata ez besteak ezin zuen amore eman, eta urteekin horma zena muga bihurtu zen.

Medikuak gupidarik gabe mintzatu zitzaidan; horregatik, ilargiaren islarik gabeko gau beltza baino etorkizun ilunagoa deskribatu zidaten. Nik, ordea, ez nuen sinetsi nahi amaren despiste modukoak – gero eta sarriago azaltzen ziren horiek – konponketa bako gaixotasun lazgarri baten adierazle argiak zirenik. Ezin nuen gure ama txotxinduta irudikatu, gero eta ahulago, egunetik egunera ezgauzago. Ez nuen begien aurrean nuena ikusi nahi. Tamalez, iragarri zidaten guztia urratsez urrats gauzatu zen.

Goizero, pare bat aldiz deitzen nion bulegotik. Batzuetan, lasaitu ederra hartzen nuen betiko amak erantzuten zidala iruditzen zitzaidalako, beste batzuetan, ostera, ez nuen lortzen elkarrizketa ganorazkoan jarduterik; ez zidan ezer ulertzen, eta edozein saltzaile lotsagabe banintz bezala eskegitzen zidan telefonoa, bere alaba nintzenik konturatu gabe. Arratsaldero, ama ikustera joaten nintzen, eta aitortu behar dut gero eta beldurtuago zabaltzen nuela etxeko atea. Ezinegon itzela sortzen zidaten arratsaldeetako bisitek, tripak uzurtuta egiten nion lehenengo diosala, zertan harrapatuko nuen beldur. Gehienetan, egoera sinestezinak eta elkarrizketa surrealistikak bilbatzen genituen, eta normaltasuna gero eta urrutiago ikusten nuen. Kosta lain kosta lagundu nahi nion amari, zurrumbilo zoro horretatik atera nahi nuen. Hala ere, medikuek agintzen zizkieten botiketan ere ez nuen aurkitzen behar zuen soluziorik. Beharbada, gure ama ez zen luzaroko izango, eta denbora horretan nire bizitzaren norabidea aldatzeari normala irizten nion. Ama zaindu nahi nuen, guri emandakoaren pusketa nimiño bat bueltatu nahi nion. Bidezkoa neritzon. Neba-arrebak kanpoan zeuden, eta zegokidan ardura bete nahi nuen.

Remediosek salbatu gintuen. Poliki-poliki gure etxeko bizitza lehengo arrastora bideratu zen. Seme-alabak berehala bueltatu ziren galdutako amaren babesaren aterpera: ikasten laguntzen nien, euren kontuak entzuteko astia hartzen nuen, katarroa batzen zutenean medikuarenera eramaten nituen, zapatuko partidetan euren jokaldiak sutsu txalotzen nituen. Martinek liburu-dendan atzeratutako lanari ekin ahal izan zion, eta bion esparru gaineko zeruan ostarteak zabaltzen hasi ziren, berriz ere hasi ginen elkarren ondoan epeltasuna igartzen, eta, konturatu gabe, etxeko atetik eta leihoetako zirrikietatik hego haizeak dakarren zorientasun leuna sartu zitzaigun.

Neba-arrebek ere izugarri eskertu zuten Remediosek gure bizitzetan ezarri zuen erremedio-segida. Distantziak amaren zaintza eragozten bazuen arren, ez ziren lehen bezain errudun

sentitzen, bazekiten Remedios zegoela amaren alboan, amak nahi edo behar zuen guztirako, eta ez zegoela bakarrik. Horrez gain, argi zuten eguneroko sartu-irtenak egiten jarraituko nuela, eta ez nuela ardura guztia bertan behera utziko, baina neurritsu egingo nituela, nire etxeko bizimodua hondatzen jarraitu gabe.

Espero baino hobeto zihoan guztia, denok berreskuratu genuen galdutako oreka. Guztiontzat izan zen irtenbide egokia, niri hori onartzea asko kostatu zitzaidan arren. Gaixotasunak bueltarik ez zuela izango jakin genuenean, ahizpa nagusiak egun osorako emakume bat hartzea proposatu zidanean, ezezko biribila bota nion, neuk zaindu eta lagunduko niola, moldatuko nintzela, zela edo hala aurrera egingo nuela, egin behar nuela. Ni horretan tematuta nengoen bitartean, handik gutxira jakin nuen Martinek nire ezkutuan hitz egiten zuela nire neba-arrebekin, eta gure arteko ipi-apa guztiak eurei kontatzen zizkiela. Hori jakitean, pare bat aste eman nituen erabat muturtuta, haserrearen garrak hartuta, bai Martinekin bai neba-arreba guztiekin. Sentitzen nuen inork ez zuela nire ahalegina aintzat hartzen eta ez nindutela gai ikusten neuk bakarrik ama zaintzeko. Erratuta zeudela oihukatu nahi nien banan-banan begietara begiratua, baina haserreak elikatuta ere neure burua gero eta nekatuago eta estutuago sumatzen nuen, amak gero eta gehiago behar ninduen, beranduago heltzen nintzen etxera eta Martin bakarrik afaltzen hasi zen. Neba-arrebei ez nien deirik hartzen, azalpenik merezi ez zutelakoan eta irmo eusten nion neure temari arratsalde batean amak txirrist egin, eta lurrera erori ostean, ama altxatzeko Martini deitu behar izan nion arte.

Gerora frogatu nuen besteek arrazoia zutela. Ama ere lasaiago zegoela esango nuke, atsegin zitzaion pertsona bat egun osoan bere ondoan egotea; ez zen ezertaz arduratzen Remediosek erremedioa jarri ziolako egin beharreko guztiari: etxea txukun eta dotore mantentzen zuen, erosketa txikiak egitera amarekin joaten zen, otorduetarako mokadu gozo askoak prestatzen zizkion, arratsaldeetan pasieran ibiltzen ziren edo elkarren ondoan telebista ikusten gelditzen ziren. Dena den, ama gero eta nahasiago ikusten nuen: ez zuen ezer egiten, jesarrita pasatzen zitzaizkion orduak minutuak lez, aspaldiko kontuak baino ez zituen errepikatzen, eta agertzen nintzenean ezagutu ere ninduen egiten.

Banekien gaixotasunaren bidea horixe zela, baina izugarri mintzen ninduen Remedios tratatzea ni banintz bezala. Deitu ere horrela deitzen zion, nire izenez: Ane. Ni, ordea, ez ninduen ezagutzen. Ez zekien auzokoa edo medikua nintzen: Batzuetan, "Ane, laztana, lagundu ateraino bisita egiten etorri den andre honi" esaten zion Remediosi; beste batzuetan, "ez dakit nor den andre hau" xuxurlatzen zion Remediosi belarrira. Horrelakoetan, arin egiten nuen alde, ezin nuelako jasan amarentzat ni ikusezina izatea. Batzuetan, gure etxera lur jota heltzeaz gain, amorru bizian egoten nintzen. Holakoetan, Martinek barre egiten zidan aurpegira, eta jeloskor nengoela esaten zidan Remediosen lekuan egon nahiko nukeela. Nik, ezetz. Ez zuela tutik ere ulertzen. Ea ondo iruditzen zitzaion Remediosek janzteia aitak aspaldi amari oparitutako eraztunak eta zetazko zapiak. Martinek, ez nuela zertan kezkatu, ez larritzeko horrenbeste,

txikikeriak baino ez zirela, gaixotasuna zela amaren eraldaketaren arrazoi, eta amarekin obsesionatuta nengoela berresten zidan.

Ni nintzen, beraz, konforme ez zegoen bakarra. Sentitzen nuen minaren minaz apur bat urruntzen ahalegindu nintzen. Eguraldi eguzkitsuko egunetan, ez nintzen hurbildu ere egiten haiek egoten ziren parke ingurura. Ez nuen nahi ikusi ama Remediosen eskutik helduta, mingarria zitzaidan “hau dut alabetan gazteena” amaren ahotik entzutea Remediosi begiratzen zion bitartean, baita Remediosen irribarre garailea ere. Remediosek ama lapurtu zigun, poliki-poliki, zalapartarik atera gabe, isilik baina urrats seguruekin. Egoeraz baliatu zen: amaren gaixotasunaz eta guztion erosotasunaz.

Amak ez ninduen ezagutzen eta nik bera ere ez. Ez zitzaion geratzen izan zenaren arrastorik: ama, eskuzabaltasun; ama, poztasun; ama, maitasun; ama, aterpe; ama, haitzulo eta babes; ama, neguko epeltasun; ama, udako freskura; ama, argi; ama, kontsolamendu; ama, segurtasun; ama, ausardia; ama, konpainia; ama, gertutasuna; ama, familiazale; ama, gurea; ama, guztiona; eta hain zuzen ere, nirea. Hil baino dezente lehenago joan zitzaidana.

Iragarritako heriotza ere heldu zitzaigun, baina ez gintuen ezustean harrapatu. Aspalditik ikusten genuen haren itzala, eta usaintzen genuen haren ustel kirats sarkorra. Horregatik, espero genuelako ez zuen heriotza txarra izan gure amak: seme-alabez inguratuta, eta, betiko ohean zetzala. Astia izan genuen despedidarako, eta bihotzak agintzen zizkigun berba goxoez azken agurra emateko, nahiz eta berak ezin zigun begiradarekin ere erantzunik bueltatu.

Herriko elizan egin ziren hileta-elizkizunak, eta, aspaldiko ohiturek agintzen duten lez, aurreko eserlekuetan eseri ginen seme-alaba guztiok gure familiekin, Remedios gure artean zela. Niri Remediosen ondoan jesartzea suertatu zitzaidan, eta horrela ikusi ahal izan nuen aitak amari ezkontzeko eskatu zioneko eraztun izugarria bere atzamar batean. Lotsagabekeria barkaezina iruditu zitzaidan egun horretan, gurekin guztiokin egon behar zenean, zorioneko eraztuna janztea. Ez nuen Remedios gehiago ikusi nahi, begien aurretik betiko joango zitzaidan, eta hori gertatzeko benetako gogoa nuen. Denak joan zirenean eta etxekook bakarrik gelditu ginenean, ordea, Remedios hurreratu zitzaidan nire baitarako pentsamenduak irakurri, eta barnean borbor nuen ondoeza nabaritu izan balitu bezala. Amaren etxeko egongelako bazter batera besotik helduta eramanez ninduen, eta han “jakizu nirekin egon den minutu bakoitzean zurekin zegoela uste zuela, horregatik deitzen zidan Ane. Jakizu zoriontsua izan dela bere alaba gazteenaren maitasunaren epelean, huts egin ez dion maitasunean. Horrexegatik, nahi zuen Carmen andreak eraztun hau zuretzat izatea. Egunotan nik eramanez dut, eta nire atzamarra zurea izan da haren begietan”. Une horretan, Remedios ezagutu nuen egunean bezala, begietara begiratu zidan artez, eta neure buru miserableaz lotsatu nintzen. Aitak amari erregalatu zion bitxia esku ahurrean estutu nuen, eta amaren heriotzagatik orduan urtu nintzen negar mantsoan.

GERANIOAK

...Baina azpimarratu du ez dagoela iparraldeko haizeak jotzen duen lekuan bizirik irautea lortu duen geranio bat baino indartsu eta ederragorik.

Zu bezain ahul. Karmele Jaio

Lolak oso gustuko zuen etxeko leihoetan hazten ziren geranioak zaintzea. Denbora igarri gabe pasatzen zitzaion orri iharrak kentzen, tiestoetako lur apurra harrotzen, behar zenetan ureztatzen, eta egunero-egunero atzera gelditutako hortz-eskuila batekin landareen orrietako zainetatik kedarra kentzen. Askotan ordu erdi baino gehiago joaten zitzaion horretan, eta gero estu ibiltzen zen etxeko zeregin guztietara ailegatzeko. Horrelakoetan, kalera ematen zuten bi leiho baino ez izateaz pozten zen.

Duela zenbait urte, Antoniorekin bion pisua izango zena ikustera joan zen lehendabiziko egun hartan, iluna iruditu zitzaion etxea, patio estuegia zuela, eta ondo baino hobeto gogoratzen du sukaldeko leihotik burua atera zuela, eguzkiaren izpi galdu baten bila. Ondo zekien jauregian bizitzeko jaioa ez zela, eta onartu behar zuela Antoniok ordaindu ahal zuena; horregatik, konformatu zen pentsatuta amak emandako geranio-landareak jarri ahal izango zituela kanpora ematen zuten bi leiho estuetan.

Egia zen Lutxanako Artzain Ona kaleko etxeetan oso landare, eta are gutxiago lore, ikusten zela; auzoan, inork ez zuen astirik hartzen landareekin endredatzeko, inork ez zien landareei garrantzirik ematen, baina Lolak oso gustuko zituen eta pentsatzen zuen euren etxeak – kanpotik, behintzat – bizitasun berezia zuela. Batzuetan, udaberrian batez ere, etxe aurreko espalaira joaten zen eta bere lorategi nanoari begira egoten zen; izan ere, handik hobeto ikusten ziren berak hazitako lore-anpulu gorri-gorriak, eta orduan alaiago sentitzen zen; begiak itxi, eta haizeak lore-usaina eskaintzen zion, txikitatik hartzen ohitu zena.

Antoniok ikusi ere ez zituen egiten Lolak hainbeste mimatzen zituen geranioak, eta, domeketan, goizean goiz, landareak ureztatzen ikusten zuenean, errieta txikiak egiten zizkion, alperrik zebilela, loreak hautsaren hautsez itoko zirela esaten zion, auzoko emakumeek ez zutela inuzentekeria horietan denborarik galtzen... Ez zen erraza landare edarrak han haztea, etxe pareko lantegi erraldoiak gau eta egun botatzen zuen ke lodi horixkak inguruko zirrikitu eta bazter guztiak betetzen zituelako, baita geranio-hostoetako zainak ere. Lolak, ordea, ez entzutearena egiten zuen eta bereari ekin eta ekin jarduten zuen.

Gure Lola zen emazte esanekoa: senarraren iritzia, ezbairik gabe, bere egiten zuena. Baina, jakina, kexatzeko arrazoirik ere ez zuen. Antonio senar ona eta langilea zen, etxe aurreko

Sefanitro erraldoian lan egiten zuen Euskal Herrira etorri zenetik, duela makina bat urte. Herriko mutil gazte bat baino gehiago etorri zen itsasadar zikin eta koipetsuaren bazterreko lantegietara, eta berehala aurkitu zuten espero zuten lana; guztiek zuten aurrera irteteko gogoia, gogor lan egiteko indarra eta kemena eta prest zeuden lanaldia behar beste luzatzeko diruaren gose aseeginak itsututa. Oso ondo ikusitako langilea zen Antonio eta ez zuen uste kexatzeko arrazoirik zuenik, lantegiko nagusien iritzia, ezbairik gabe, bere egiten zuen eta oso eskertuta sentitzen zen.

Batzuetan, zenbait iluntzetan, Antoniok lanaldi nekagarria bukatu ostean, etxera heldu, eta azakaleatik makinetao grasa beltza kentzen saiatu ostean, sukaldean jesartzen zen eta Marina txikiaren egurrezko sehaska eragiten zuen goxo, astiro; orduan, Lolak afari pobrea prestatzen zuen, eta, Antoniok esaten zion urte gutxiren buruan bizitza aldatzeko aukera edukiko zutela, etorkizun oparoa edukiko zutela antzematen zuela: hainbeste ordu lan egin gabe biziko zirela; astegunetan ere, paseatzeko astia hartuko zutela; asteburuetan, Marina txikiarekin trena hartuko zutela eta kostaldeko herrixketan arratsaldeak pasatuko zituztela eta Kantauri itsasoko olatu gogorrek haien aurpegi zoriontsuak ziprztinduko zituztela. Orduan, fideo-zopa urtsua jan bitartean, poza sentitzen zuten elkarri begiratzean, zorioneko egun horiek iristeko zain; egun argitsu eta haizetsuetan, Antonioren hitzezko ametsak gauzatzeaz zeudela sentitzen zuen eta Lutxanako etxera kresal-usaina eta olatu-talken zarata heltzen zitzaizkion Lolari, Sefanitroren ke hori eta mardularen artetik.

***** ***** *****

– No se imagina, madre, lo hermoso que es ese mar del norte. Es bravo y fuerte; las olas golpean los acantilados, las rocas, y los bosques poblados y oscuros llegan casi hasta la misma orilla.

A Marina le gusta oír el rugido de ese mar que se oye por las noches desde nuestra casa...

Lolaren amak hori guztia entzunda, poztasun handia sentitzen zuen; alaba urruti egon arren, zoriontsua zela antzematen zuelako.

Urte bitik behin joaten ziren Ecijara eta hilabete eskas ematen zuten herrian. Horretarako, harrapatzen zituzten txanpon txiki guztiak gordetzen ibiltzen ziren, soldata urritik asko aurreratzen eta bakarrik behar-beharrezkoa zena erosten. Domeketan eta jaiegunetan, Marina txikiarekin paseatzen ziren herrian bertan, Sefanitro erraldoiaren itzalpean, eta, itsasoaren hegaletik ibiltzeko, trenaren txartelaren dirua ere ez zioten euren buruari opa izaten, “hurrengo batean joango gara” esaten zuten, eta, hola, domekaz domeka, Marina txikia koskortu zitzaien.

Udaberria heldu baino lehen, hasten zen gure Lola soineko zuriak eta loredunak josten; hori dela eta, jaiegun euritsu edo hotzetan etxean gelditzen ziren lana aurreratzeo eta arropak bukatzeo. Izan ere, herrian ikusi behar zuten zein ondo zeuden, zein ondo zihoakien bizitza

herritik kanpo. Ezin zuten arropa zarpailik eta maizturik eraman, itxura txarrik eduki, ezta tristurarik adierazi ere. Antonik herritik alde egiteko erabakia hartu zuenean, bazekien bizimodu hobearen bila joan zela eta ezin zuela edozein modutan bueltatu. Antoniok herriko tabernan kontatzen zien lagunei lantegi erraldoiak zeudela hemen, lana egin ahala sortzen zela, estranjeriatik ere enkargu asko jasotzen zituztela, beste inon ikusi ez dituen auto itzelak inguruan ugariak zirela, eta hango langileak pobreziatik libre zirela.

Oporrak euren Andaluzian bukatu ostean, Lutxanara bueltatuta, kedarrez eta hauts horiz estalitako leiho-ertzak garbitzen zituen Lolak afanean, geranio zaharkituak eta keak erdi itoak kendu, eta Ecija zurutik ekarritako berriak jartzen zituen. Landareak zaintzen zituen bakoitzean, urruti utzitako amaren begi urtsuak zetozkion burura, eta samurtasunez gogoratzen zuen haren irribarrea euren bizimoduaren gorabeheraz hitz egiten zionean. Horrela, ikasi zuen Lolak asmatutako egiek, askotan, bizitzen laguntzen dutela eta mesede galanta egiten digutela.

Baina urteak konturatu gabe pasatzen dira, eta denborak krudeltasunez higitzen ditu gaztetako ilusioak, gure begien distira apaltzen den bezalaxe. Antoniok aspaldi ez zuen etorkizunik aipatzen eta itsasoari buruz ere ez zuen hitz egiten; Lolak eskatu ere ez zion horrelakorik eskatzen, zertarako?

Hori bai, Marina zen oraingoan ilusio guztien ardatza, amets guztiak gorpuzten ziren berarengan. Neska gazte, ederra eta esanekoa zen. Txikitan, herriko eskolan; eta Barakaldoko institutuan, gaztetan, ikasi zuen gurasoek ikasi ez zutena. Ezagutzen zuen bizitzaren latza, hori dela eta ondo saiatu zen gurasoen ahaleginari etekina ateratzen. Egun batean, afaldu ostean, mediku izan nahi zuela aitortu zien gurasoei; Marinak zalapartarik gabe esan zien erabaki sendoa zela, eta haien baimena nahi zuela. Lolak afaloste hartan pentsatu zuen bere eskuek zaindutako geraniorik ederrena eta gorriena zuela begien aurrean, eta inoiz baino harroago sentitu zen.

Hala izan zen, esan eta izan. Marina medikuntza ikasten hasi zen eta gurasoak saiatzen ziren albari laguntzen. Gau askotan, goizaldera arte ikasten gelditu behar zenetan, Lola bere ondoan jesartzen zen arropa zaharren bat konpontzen, puntua egiten, eta takin-takin kafesne beroa eskaintzen. Alabaren ezpainetako mugimendu bizkorrari eta isilari begiratzen tarte luzeak joaten zitzaizkion, arrosario mutua eta paper-hotsa lagun zituela. Amari ez zitzaion neketsu egin alabaren goizaldeetako kide bihurtzea, gainera ordu horiei esker, Antoniok sarriago estreinatzen zituen Lolak eskuz eginiko jertseak.

Horrela, bata bestearen atzetik joan ziren ordu geldoak, gau hotzak, hilabete aldakorrak eta etorkizunez betetako urteak. Marinarengan jarritako ilusioak errealitate egiten joan ziren, eskailera aldapatsuak igotzen diren bezalaxe: astiro. Antoniok eta Lolak ezin zuten sinetsi haien alaba mediku izan zitekeenik, eurek zekiten apurretik alaba horraino hel zitekeenik, eta atzera begira jartzen zirenean, gogora etortzen zitzaizkien, Lutxanara heldu zirenetik, argitasun

gabeko egun amaigabeak, euri langar tematia, sukalde hotza, izara erdi hezeak, Antonioren esku lakarrak, Lolaren betazpi urdinuak eta oso gutxitan ikusitako itsaso gogorraren olatuen zarata. Eskerrak ez zuela Lolaren amak inoiz alabaren zorioneko etxe iluna bisitatu, amari luzeegia iruditzen zitzaion bidaia eta nahikoa izaten zuen Lolak bidaltzen zizkion argazki apurrak ikustea konforme gelditzeko; eskerrak Lolak kontatzen zizkion gezur ederrak sinesten zituen eta galdera gutxi egiten zizkion, amak begiekin irribarre egiten zion eta horri esker Lolaren barrua baretzen zen.

Lolak eta Antoniok pasatutako guztia atzean zegoen, iragana zen; Marinak, ordea, etorkizun oparoa zuen espero, eta bizitzaren ederraz gozatzeko aukera merezi zuela pentsatzen zuen. Amets egiten zuen bizitza on batekin: Lutxanatik irtengo zela, etxe dotore, epela eta eguzkitsua erosiko zuela, beste paraje batzuk ezagutuko zituela, beste hizkuntza batzuk entzungo zituela eta lan ona edukiko zuela. Horregatik, ikasketak bukatzeko bi urteko beka batekin Berlinera joateko aukera izan zuenean, ez zuen bi aldiz pentsatu.

Lehenengo urte osoan bizpahiru bisita labur egin zizkien Marinak gurasoei; bitartean, gutunak idazten zizkien, argazkiak bidali, eta astean behin telefonoz ere berba egiten zuten. Udako oporretan, Lutxanako etxera bueltatu zen inoiz baino dotoreago eta alaiago gurasoak bisitatzera. Hamabost eguneko oporraldia zuelako, minutuak ere aprobetxatu behar zituen guraso zaharkituekin egoteko eta argi uzteko zein ondo moldatu zen Alemaniako bizimodura. Horrez gain, bazirudien lanean bertan gelditzeko aukera bikaina edukiko zuela eta bizitzak eskaintzen zion aukera hori aprobetxatu behar zuela. Oso eskertuta sentitzen zen.

– No te imaginas, madre, lo hermosa que es esa tierra del norte, cómo se elevan sus montañas y cómo se asientan sus verdes llanuras. Allí se palpa el progreso, la vida en las ciudades es generosa, no falta el trabajo y...

Lolak isilik entzuten zituen Marinaren hizketaldiak; saiatzen zen poztasuna erakusten eta dena sinesten zuelako begirada jartzen, Lolak inork baino hobeto zekien zer zen ilusioaren kulunka goxoan bizitzea, baina tamalez, bazekien ametsak gutxitan gauzatzen zirela. Alabari entzuten, bizitza errepikatzen ari zela iruditzen zitzaion eta sasoi bateko Ecijako egunak zetozkion burura, han pasatutako oporraldiak, amarekin paseatzen egindako iturri-osterak, aire epelaren igurtzia azalean, berak asmatutako gezur ederren mikaztasuna ahoan, eta geranio emankorren usain sarkorra.

Hau guztia buruan zebilkiola, duela zenbait urte amak Ecija hartan egin zuen bezalaxe, leiho-hegaletako lorontzietatik geranio-landareak eman zizkion berak ere Marinari, geranio helduari artaziekin zati bat moztu zion eta beste lorontzi batean, urrutian, ondo hazteko eta zaintzeko agindua eman zion. Lolak ondo asko zekien udaberri oro geranioek gorritasun distiratsua ematen zuten bitartean, Marinaren bihotzean bizitza hobearen itxaropena ez zela itzaliko; horregatik, alaba lasai agurtu zuen Berlinera bueltatu behar zen egunean.

Orain hemen naukazue begien aurrean daukadana ezagutu ezinik, nahiz eta urte andana eman izan dudak kale hauek zapaltzen. Ez dakit ondo, noiz hasi ziren gauzak aldatzen, noiz hasi nintzen bakarrik geratzen. Ez dakit ondo, noiztik sentitzen dudak denboraren pisua sorbaldeetan saka egiten, noiztik egiten zaizkidan egunak eternitate txikiak eta gaindiezinak. Gauzak ondo doazenean, gaztetan, denbora igarri gabe pasatzen da, arin eta arintasunez, ilusioaren motorrak bultzatuta. Orain, ordea, matxuratutako motorra baino ez naiz eta denbora dut etsai. Orain hemen naukazue desagertutako Sefanitro erraldoiari begira, nire betiko etxe aurrean dagoen leku hutsari so. Begien aurrean gertatutako aldaketa guztiei buelta eman ezinik eta puzzle erraldoi honen piezak kokatu ezinik; horregatik, ezin dut sinetsi buzodun langilerik ez egotea kaleetan, kamioirik ez entzutea inguruan, makinen etengabeko zarata eta tximinietako ke horirik ez antzematea. Baina gauzak aldatu dira, ezer ez delako betiko. Sefanitroren orube handian etxeak egingo omen dituzte, ez gurearen modukoak, noski; etxe txukunagoak, tarteka txalet modukoren batzuk ere egingo omen dituzte, eta Lutxanari beste aire berri bat eman nahi diotela iragartzen dute hemengo agintariek.

Orain hemen naukazue jende ezezagunaren artean. Auzokide batzuk herrira bueltatu ziren, lanerako urteak bete ondoren, eta erretiro urria hartzeko garaia heldu zitzaizkion; beste batzuk beste nonbaitera joan ziren, hemengo ke horiarekin gogaituta eta birrikak erdi ustelduta zituztela; beste batzuek hemen, Lutxanan, jarraitzen dute, etxe zuloan sartuta. Dendara edo paseatzera ateratzen naizenetan, gutxitan egiten dut ezagunen batekin topo. Gauzak asko aldatu dira; orain beste leku askotatik etorritakoak ikusten ditut: Afrikatik, Txinatik, Errumaniatik... Guztiak ilusioz beteta etorri dira, bizitza berri eta hobe baten bila. Nik ondo ezagutzen dut hori guztia, Ecijatik ekarritako fardel zaharrea ilusio bera nekarrelako, Antoniok kontaktzen zizkidanak egia bihur zitezkeela sinistuta, ni neu ere etorri egin nintzelako.

Orain hemen naukazue, ez daukadalako nora joan. Gure sasoiko emakumeok ez genuen hautatzen, gure gurasoek edota gure senarrek erabakitzen zuten, esaten ziguten zer zen onena eta zer egin behar genuen, gure bizitza etxekoengan pentsatuta egin behar genuen, etengabean moldatu eta egokitu. Horrela, Antoniok Lutxanara etortzea pentsatu zuenean bere erabakiaren itsasontzi singlean abiatu nintzen, Lutxana izeneko portua zein zen eta non zegoen jakin gabe. Gure sasoiko emakumeok ez genuen usu lagunik egiten, ez genuen lagunik behar, etxekoak behar genuen izan eta gure mundua familia esparrura mugatu. Ni beste askoren modukoa izan naiz, eta egin behar nuena egin dut. Hala ere, harro nago Marinari eman diodalako bere bide propioari ekiteko aukera, eta berak nahi dituen erabakiak hartzeko askatasuna.

Orain hemen naukazue, Antonio joan zenetik, bakar-bakarrik. Ecija hegoegi geratu zait, hainbeste urte pasatu ostean; Berlin, ordea, iparregi, hotzegi, ezezagunegi urte gutxi batzuk egiteko. Horregatik, hemen jarraitzen dut, neure egin dudak lekuan, geranioei orri iharrak kentzen, tiestoetako lur apurra harrotzen, behar denetan ureztatzen, eta egunero-egunero atzera gelditutako hortz-eskuila zahar batekin landareen orrietako zainetatik kedarra kentzen.

OROIMENeko HERRIA

Ez da erraza izan bueltatzea, baina aspaldiko haurtzaroa pasatu zueneko auzora itzuli denetik, Solek sentitzen du, urteetan ausartu gabe eman beharreko saltoa zahartu samartuta eman arren, bakearen putzu epelera erori dela, arinagoa dela, nasaitu zaizkiola gorputzeko giltzadurak eta urteetan erraietatik sortzen zitzaion ezinegon sorra ez duela apenas antzematen, nahiz eta ez duen bertan inor ezagutzen eta sasoi hartako seniderik edo lagunik ez duen aurkitu.

Denborak dena aldatu du. Auzoa bera aldatuta dago, ez du zerikusirik memorian hain babesturik eta gorderik zuenarekin: buzo urdineko langile okertuen arrastorik ez da gelditzen, ezta eztulka zebiltzan meatzari iharren itzalik ere; horiek desagertu dira sasoi bateko tximinia altu eta pitzatuetatik ke lodi beltz astuna haizetan desagiten zen bezalaxe. Zerua urdinu da, berunetik kolore biziak erne dira. Orduko langileria pobrearen etxeak, kanpotik behintzat, garbitu dituzte; eta beharbada, egin berritan baino itxura txukunagoa dute.

Denborak dena aldatu du. Auzoko zarata moteldu da, kalean ez da ikusten umerik jolasean, etxeetan ere gutxi omen dira, euren barre-argara zaratatsurik edo amen haserre-oihurik ez delako patio estuetan gora eskapatzen, Sole txikia zen sasoiaren gertatzen zen moduan. Dena da ezaguna, baina aldi berean diferentea. Plazako elizatzarra bera, orain, gehienetan, hutsik egoten da, eta, beste askotan, itxita; auzoko aldaketa horien guztien lekuko bakartia eta isila bihurtuta.

Denborak dena aldatu du. Kaleetako izen gehienak ere ez zaizkio ezagunak egiten, baina, zorionez bakan batzuk lehengoak dira. Solek ez du inoiz ahaztu orduko etxeko helbidea, sarri erreparatzen zuen, ia-ia egunero, bizia salbatuko zion otoitz baten indarrarekin: Artzain Ona kalea 7, 4.a ezkerre, Artzain Ona kalea 7, 4.a ezkerre ... Hor daude biak: txikitako etxea eta bera, bata bestaren parean, aurrez aurre. Atari estuaren gaineko laugarren pisuko leihoetara burua altxatu duenean, baina, barru-barrutik sortu zaion olatu indartsu batek begiak emozio gaziz bete dizkio eta, berehala, gogor itxi behar izan ditu enbatari eusteko. Han dago euren etxea, oroitzapenen kutxakoa baino estuagoa; halere, zutik, irmo, aspalditik zain izan balu bezala.

Denborak dena aldatu du. Gogorra eta ederra izan da emozioaren astindua, espero zuena eta mila aldiz irudikatu duena baino bortitzagoa, iragana kolpera etorri ziolako. Emozio gehiegi, oroitzapen gehiegi denak ahokada batean irensteko, poliki-poliki murtxikatu behar da lehenaldia, are gehiago mingarria bada, nahikoa da egunero-egunero apur bat, dosi txikietan banatu. Horregatik, ez du Solek birritan pentsatu behar izan erabakitzeke kale horretan bertan topatu behar duela bizilekua, parean duen horietako batean. Akorduan dauka eurena ez zela

pisu handia, baina orain primeran egokituko da antzeko batean. Izan ere, emakume alargun eta bakar batek ez du gehiago behar; altuenaz jota udan eta Gabonetan, urtean pare bat aldiz, etorriko zaizkio Niko eta Sonia egun gutxi batzuetako bisitan. Ez, ez du birritan pentsatu behar izan, ez du gehiago behar.

Nikok ez zuen ulertu amaren erabakia, eta gero ez zuen batere ondo hartu. Hasieran, aita hil berritan, alargun-bizitzaren hastapenetan, ez zion Euskal Herrira bueltatzeko burutazioari jaramon handirik egin, amari pasatuko zitzaiolako segurtasuna zuelako. Amak bizitza ia osoa egin zuen San Petesburgon eta ez zuen ordura arte jakin hara heldu aurreko oroitzapenek ama hainbeste zamaten zutenik. Batzuetan, baina oso gutxitan, pertsona nagusi guztiek egiten duten moduan, txikitako kontuez mintzatzen zen: han utzitako ama, aita, bidaia, ahizpa nagusia, beldurra, hango eskola, hango herria ... Halakoetan, urrutitik eta etsipen moduko batetik mintzatzen zela iruditzen zitzaion semeari, sendatu gabeko mina zuela ematen zuen kontu zahar haietaz hitz egiten zuen bakoitzeko; horregatik, pentsatzekoa zen amak uxatu nahi izaten zituela oroitzapen triste horiek guztiak, eta, aldi berean, ahalegintzen zela beste inor ez tristatzen atzean utzi beharreko gertakizun horiekin.

Senarrak beste nonbaitera bideratu nahi izaten zituen amaren une ilun horiek, eta iragana gordetzen eta lurperatzen ikasi behar zuela esaten zion: “ez dizu onik egiten, Sole, konpondu ezin denari gira eta buelta ematen ibiltzeak. Zu hemengoa zara, dagoeneko total gutarra, han ez duzu ezer, dena desegin zen gerra madarikatu hartan. Ez begiratu atzera, beti aurrera, Sole, beti aurrera.”

Carmen eta Sole aurrera doaz ilara luze batean. Beldurrak aurrera begiratzera derrigortzen ditu, ez dute atzera begiraten, jende gehiegi dagoelako amaren soineko beltza antzemateko hainbeste beso, malko, zapi, garrasi eta azken muxuren artean. Carmenek ere ez du ama ikusten eta, ezinbestean, aurrera doaz beste hainbeste neska-mutil izuturen artean. Aurrean duten itsasontzira doaz, ilarako ume txiki guztiak irentsiko dituen itsasontzi erraldoi horren sabel ilunera; batzuk beste norbait helduta doaz, beste batzuek, ordea, maleta txiki bat dute euskarri bakar.

Bidaia luzea izango dela esan die amak, leku ezezagun eta polit batera helduko direla, han ondo hartuko dituztela eta denbora gutxi egingo dutela urrutiko leku hartan. Carmenek eta Solek ez dute bidaia hori egin nahi, ez dute etxetik beste inora joan nahi, arrazoiak arrazoi, ez dute ezer ulertzen, amaren aurpegiak ez duelako batere poztasunik adierazten bidaiaz mintzatzen zaienean. Ama gezurretan ari dela sumatzen dute, baina ez dakite zergatik. Hala ere, Carmen lasaitu omen da apur bat ikusi duenean ume asko, asko eta askori euren amek gauza bera esan dietela eta ez direla bidaia kezkarri horretan abiatuko diren bakarrak. Carmenek eskutxo estutu dio Soleri, eta eztulen arteko une labur batean eguneko lehen irribarrea luzatu dio.

Gorputza erabat minduta dute, egurrezko aulkiek ez dietelako lagundu bidaiaren gogorra leuntzen. Carmenek eztularen eztulez errementatu beharrean egin du bidaia, eta Solek gauetan ahizpa nagusiaren bularraren kontra paratu du burua bere gorputzaren epeltasunak nahigabea arintzen lagunduko diolakoan. Orduak astun dabilta urrutiko olatuen kontra talka eta talka. Ez da ezer gertatzen eta ez da inor mugitzen, ume guztien gorputzeko beldurra lurrundu da eta batu da barkuko aire pisutsuarekin nahasteko. Berba egiteko ere ez dute adorerik, tarteka xuxurlaka hitz solte batzuk esaten dizkiete elkarri, bakarrik entzuten dira eztulak, olatuak, itsasoaren orroak eta kolpeak, eztulak ... Halako batean, irribarre zabala egiteko ahaleginetan dabilen emakume zimel bat agertu da eta itsasontzitik laster jaitsiko direla esan die. Heldu omen dira nonbaitera. Behean, lehorrean, txikitik handira, gazteenetik zaharreneira ilaran jarri dituzte. Carmen askoz atzerago geratu da, baina Solek haren txakur-etzula entzun dezake. Ez daki zenbat denbora eman duten ilaran: ordubete edo egun santu osoa, baina, bat-batean, isiltasuna aditu du, begiak ondo zabaldu ditu, eta hara eta hona begiratu ostean, eskuak izerditu zaizkio, arnasa estutu, eta oinpeko lurra biguntzen sentitu du. Erori da arbola abaildu baten antzera: erroak leku batean eta enborra bestean dituela. Erori da ezagutzen ez duen leku hotz batean, galdua eta bakarrik.

Artzain Ona kaleko pisua alokatu eta gero, bere bihotzeko Nikori deitu dio barruko poztasuna semearekin partitzeko. Esan dio ez dela zaila izan txikitari bizi zeneko kalean pisua aurkitzea, hiru ikusi dituela, eta, denak antzekoak izan arren, hirugarren solairuan dagoena aukeratu duela, eta logela bik kanpoko aldera ematen dutela, eta sukaldea ilun samarra dela, baina ez duela sukaldean luze egoteko asmorik eta nahiago dituela argitasuna eta eguzki apur bat, hirugarreneira oinez igo behar badu ere. Nikok amari entzun dio ezer esan gabe, ez daki zer erantzun behar dion, ezta poztu edo muturtuta jarraitu behar duen ere.

Aita hil zenerako, Nikok bazeramatzan zazpi urte San Petesburgotik kanpo lanean eta Soniarekin bizitzen. Aitaren heriotzak ustekabeen harrapatu zituen ama-semeak, une batetik bestera bien bizitzak irauli ziren eta egunak eman zituzten zer egin eta zer erabaki asmatu ezinik. Kolpe latza izan zen biontzat, baina batez ere amarentzat. Nikok eta Soniak amari lagundu nahi zioten eta, hiletaren bueltako gorabehera guztiak bukatu ostean, euren etxera eramán zuten ama. Sole babestuta eta eskertuta zegoen arren, ez zuen bidezko jotzen bikote gaztearen bizitza baldintzatzea. Urteak gorabehera, sasoiako ikusten zuen bere burua, bizitzeko gelditzen zitzaiona benetan bizi nahi zuen, ez zuen inoren menpe egon nahi, are gutxiago traba bihurtu. Hilabete horietan, esnatu zitzaion urteetan lozorroan izandako ideia: bere herrira bueltatzeko nahia. Hasieran ideia zoro eta lauso bat baino ez zena, indarra hartzen joan zen, egunetik egunera handitzen, hedatzen, bere barruan zabaltzen, burua ere kolpatu egiten zion, talka eta talka itsaso handiaren olatuek bezalaxe, eta, azkenean, ia-ia egunero, gogora etortzen zitzaizkion senarraren hitzak: "Ez begiratu atzera, beti aurrera, Sole, beti aurrera".

Nikok ez zuen ezer ulertzen, “Zertarako? Ideia horrek ez dauka zentzurik! Han ez duzu inor ezagutzen, bakarrik egongo zara eta oso urruti gugandik. Ez daukazu abentura antzuetan ibiltzeko adinik. Hemen ez zaizu ezer falta, edo, nahiago baduzu, bueltatu zuen betiko etxera, ondo bano hobeto bizi gaitzke elkarrengandik gertu”. Dena alperrik! Nikoren argudioak eta erregruak txikiak eta epelak ziren Soleren erabakiaren aldean. Pentsatzen zuen bakoitzean, gero eta argiago zuen umetan egin ez zuen bueltako bidaia egin behar zuela. Jakin behar zuen zergatik gelditu zen han, zergatik ez zitzaion inor bila etorri, zergatik ez zitzaion inoiz gutunik edo erretraturik heldu, zer pasatu zitzaion gurasoei ... Ezin zuen onartu bera han utzita bizitza normala egin zutenik. Zaila izango zen hori guztia argitzea ordutik urte gehiegi pasatu zirelako, baina, gutxienez, iraganari begietara begiratu nahi zion, berriz ikusi herria, plaza, eskola ... Urteetan itxi gabeko zauria ondo osatzeko, etxera bueltatu behar zuen, urrutiko etxe ilun hartara.

Sole logela argitsu eta dotore bateko ohe zabalean esnatu da, usain goxoko maindire zurien artean. Ez dago beste inor. Ez daki non dagoen. Leioa zabaldu du, zirrikitu bat baino ez. Aireak ez du betiko usaina. Belardi zaindu ederra du begien aurrean eta zuhaitz sendo ilunak altxatzen dira ikusten ari den paisaiari muga egiten. Zeruak ore pisutsu baten itxura dauka. Begiak kliskatu, eta bere etxeko logela heze eta biluzian egon nahiko lukeela pentsatzen du. Carmenen eztul-hotsa entzun nahiko luke. Ez dago auzokoen zalapartarik inguruan, ez da kaleko oihurik aditzen, ezta sukaldeko ontzi-hotsik ere. Isiltasun baketsuegi batek hartua du bera dagoen gela hori. Bat-batean, ama baino dezente gazteago ematen duen andre ilegorri irriabartsu bat sartu da gelan, atean kax-kax jo eta gero. Ez dio ulertzen esaten duena. Ez daki zer nahi duen eta zergatik dagoen etxe horretan. Amarengana joan nahi du eta amaren altzoan jarri. Baina andre ilegorria dago bere alboan, ohe gainean eserita, berba eta berba egiten. Eztarria soka tenkatu batek baino gogorrago estutzen dio Soleri barruan duen negargurak, ez du, ordea, negarrik egin nahi. Emakume horri etxera bueltatu nahi duela esan nahi dio, Carmen galdu dela eta ondoezik dagoela. Ez daki zelan adieraz diezaiokeen hori guztia, eta konturatu denerako izerditu zaizkio eskuak, ikusmena lanbrotu zaio, tripetan zitzada minkorra igarri du eta berehala konturatu da txizak barruko eta kanpoko arropa guztiak busti dizkiola.

Emakume ilegorriak Sole eskutik helduta darama, ez daki nora doan ezta zertarako ere. Ohitu da emakumearen ahotsa bere inguruan entzuten, etengabe egiten du berba eta eskuak bere hitzen erritmora astintzen ditu, hegazti dotore baten hegoen antzera. Batzuetan, mututzen den une laburretan, berari begira-begira gelditzen zaio, begiekin ere badaki hitz egiten, eta eskuarekin kokotsa altxatzen dio. Pena da, baina Solek ez dio ezer ulertzen. Ez du konprenitzen zergatik ez dagoen amarekin, non dagoen, zergatik sartu zituzten itsasontzi handi hartan. Ez daki noiz etorriko zaion ama bila ezta zenbat denbora pasatu behar duen horrela. Solek ez daki zer den gerra eta ezin du oraindik ikasi hitz horrek sakontasun itzela eta beltza duela. Pilatu zaizkio erantzunik gabeko kezka gehiegi bere gorputz txikian, ozta-ozta kabitzen zaizkionak barruan gainezka egin gabe.

Etxe zapal eta luzanga bateko atea zabaldu du emakume ilegorriak. Egurrezko mahai pilo bat dago ondo lerrokatutako ilaratan, eta haien atzean ondo orraztutako neskatila isilak aurrera begira. Emakume ilegorriak gela argitsuaren aurrean dagoen emakumearen parera eraman du Sole, andre biak berrikerian hasi dira eta Solek ez du bururik altxatzen aurrean dituen neskatilen aurpegiak ikusteko, nahiz eta beste guztiek ez dioten begirik kentzen. Nahiago du zoruko egur horixkaren biribil ilunei erreparatzea, tamaina eta itxura desberdinetako orbanetan begirada galtzea, biribil batetik salto egitea begiekin beste batera; ohol-xafla bakoitzak gutxienez badauzka holako bat edo bi, denak antzekoak eta denak dira diferenteak, zoruko egur guztiak bereiz daitezke ziprztinduta dituen beltzuneei esker, kolpe ilun horiek bereizgarri direlako, xaflatako identitate-markak. Berak, bitartean, atzamar-puntak igurtzi ditu bata bestearekin, eta konturatu da ez duela hatz-markarik, azala berdindu zaiola, lehen zituen arrasto finak ez dituela aurkitzen, bera ez dela egurraren modukoa, ez duela identitate-markarik. Agian, ez dagoelako berez dagokion lekuan, sustraiak ebaki dizkiotelako, etxetik urrutiegi dagoelako eta argi dauka bidaia luzeegiaren ondorioz gertatu zaiola, balea baten tamainako barku hartan sartu ziren guztiei berdin pasatuko zitzaizela ... baina, bat-batean, eztul-hots ezagun bat entzun du, errepikatu da, berriz ere entzun du, belarrietara heldu zaizkio talka eta talka, itsasoa handi dagoenean olatuek egiten duten antzera, uxatu ditu bere atzamarren gaineko kezka inuzenteak eta Carmenen aurpegia topatzeko altxatu du burua. Badaki ahizparen eztula dela, ezin da beste inorena izan gau gehiegitan izan duelako lagun. Irakasleak eraman du libre dagoen aulki bateraino, eta, aurreko egunetan ez bezala, pozik sentitzen da.

Carmenekin berriz elkartzeak izugarrizko poza eman dio. Saltoka eta arineketan egiten du etxetik eskolarako bidea. Eskolan ezin dira bata bestearen ondoan jesarri, eta, dagoeneko, kargutu da etxe banatan biziko direla egokitu zaien familiekin, baina atsedenaldea biona da, amaitu arte hitz egin dezakete eta barruko kezkak trukatu, barre egin, kantatu, jolastu ...

Carmenek ezin izaten du luze ibili soka-saltoan, arnasa estutzen zaio eta eztula zitaldu. Holakoetan, Solek ere gehien gustatzen zaion jolasari uzten dio eta Carmenen ondoan jesaritzen da, eztula bakandu eta berriz lasaitu arte. Carmenekin dagoenean ama etortzen zaio akordura, eta, heldu zirenetik, ahizpa nagusiari galdetu nahi diona esaten ausartzen da:

- Noiz etorriko da ama gure bila?
- Ez kezkatu, Sole. Amak ez gaitu hemen utziko, ahal dutenean, dena bukatzen denean, aita eta ama etorriko dira gure bila.
- Eta, zergatik etorri gara hona? Etxera bueltatu nahi dut

- Nik ere bai!!! Hala ere, gure moduan beste asko etorri dira eta ez gaituzte gu hemen utziko beste guztiak doazenean, ezta? Hemen seguruago gaude, arriskuetaatik urruti, gainera ondo zaintzen gaituzte eta laster batean bueltatuko gara etxera.

Nikori deitu dio, berriz ere, notizia onak eman nahian. Arindu nahi dio distantziak puzten dion kezka, jakin badaki erruak luzatuko dizkiola gauak eta, askotan, ama abandonatu duelako mikaztasunak sakatuko diola barrua. Solek ez du horrelakorik nahi. Distantziak distantzia, semea Soniarekin eta eraikitzen ari diren bizimoduarekin zoriontsu nahi du, kezka antzurik gabe, eta konpontzen zailak diren buruhaustetatik libre. Horregatik, aprobetxatzen ditu egun alai guztiak semearekin berba egiteko eta gertatu zaizkion txikieria pozgarri guztiak handiarekin aurrera deskribatzeko: pisuan oso gustura dagoela esaten dio, askoz hobeto egiten duela lo, lasai, ez dela bakarrik sentitzen, meioratu ere egin dela eta herrira bueltatzeak mesede nabarmena ekarri diola. Gainera alboko ateko andrearekin elkartu da nahikotxo egunetan, arratsaldeko pasiera bide beretik egiten dutelako, luze egoten direla berbetan eta, bitartean, euren bizitzaren berri ematen diotela elkarri.

Lola deitzen da eta Sole baino gazteagoa da. Lola ere alarguna da eta alaba bakarra Alemanian dauka lanean: Marina. Soleri beti gustatu izan zaio izen hori eta Lolak irribarre batekin eskertu du alabaren izenaren gaineko komentarioa. Lolak gaineratu dio hemengo itsasoaren indarrak liluratuta jarri ziotela neskatoari izen hori. Horixe nahi zutela alabarentzat: indarra eta bizitzari aurre egiteko kemena, baina Lolak berak barre egiten du esandako inuzentekieriaz jabetuta. Irribarre errazekoa da Lola, alaia eta bizia. Igartzen zaio ez dela hemengoa egun gris eta euritsuetan berak jositako soineko kolore bizikoak eta lora handiko alkandorak janzen dituelako eta bere etxeko leiho hegalak udaberri-udetan anpulu gorri handi ederrez bete daitezen, geranioak—kale osoan beste inork ez bezala—zaintzen dituelako. Harro begiratzen die bere landareei, sinetsita fatxada grisa edertzen dutela, eta, aldi berean, bertan bizi direnen bizimodua alaitzen dutela; baina batez ere, bere gaztetako Ecija gogorarazten diotelako.

Lolak lauretan puntuan jotzen du Soleren etxeko tinbrea. Biek adostu dute ateri dagoen egunetan elkarrekin egingo dutela bazkalosteko osteratxoa. Gehienetan, Barakaldoko herriko plazaraino heltzen dira eta han kafesne beroa hartzen dute mahai libre bat ikusten badute inguruko tabernaren batean. Solek gustura entzuten ditu Lolaren gorabeherak, alaitzen diotelako eguna eta ezagutu ez zituen kontuz eta pasadizoz hornitzen diolako memoriaren kutxa hutsa. Ia-ia egunero aipatzen dio Sefanitro erraldoia hango orube paretik pasatzen direnean, hango langile piloa, hango mugimendua, hango zarata, hango kamioi-ilarak, hango tximinien altuera, hango kea, hango ke lodia, hango ke lodi horixka ... Antoniok hogeita hamar urte egin omen zituen bertan lanean, Ecijatik etorri zirenetik beste lantegi batean proba egin gabe, pozik izan zuten zortzarekin. Antonio langile fina izan zen eta irabazten zuenaz bizitza duina egin zutela aitortzen dio Lolak. Solek ez daki zer pentsatu. Askotan, denborak makilatzen ditu iraganean pasatutako miseriak, eta geure buruak uxatu egiten ditu ahazteraino, baina beti

geratzen da arrastoa arkatzarekin zerbait gogor idatzita ezabatu nahi denean bezalaxe. Ezin du sinetsi bizimodu abila eduki zutenik Lolari argitasunez betetako begiak iluntzen zaizkiolako Antonioren eskuetako lakartasunez, azaleko ximur goiztiarrez, nekeaz, nekearen nekeaz, eztulaz, tarterik gabeko eztul tematiaz eta goizegi heldu zen amaiera ankerraz hitz egiten duen bakoitzean.

Badira hiru egun Carmen ez dela eskolara joan. Sole lehenengo egunetik beretik kezkatzen hasi da, ez daki non dagoen, ez daki zergatik ez dagoen eskolan, ez daki nor jakingo duen zer gertatu zaion, ez daki irakaslari galdetzen asmatuko duen, ez daki non bizi den Carmen... Berriz ere kezka bete zaio gorputza. Eskolatik bueltan, arratsaldean, Sole saiatu da ikasi duen errusiera trakets apurrean emakume ilegorriari galdetzen ahizparen etxeko helbidea, eta zerbait jakin nahi duela adierazten, esan nahi dio eztul txarra duela Carmenek. Soleren ama ilegorriak une labur batez begietara begiratu, eta aurpegia ferekatu dio, baina ez dio garrantzi handirik eman kontuari, eta, ohikoa den moduan, etengabeko bakarrizketa ulertezin horri ekin dio.

Etxean, ez dago beste umerik; emakume ilegorria eta Ivan izeneko gizon handikote bat baino ez. Biak dira oso atseginak gerratik ihesi etorri zaien neskatilarekin eta bene-benetan saiatzen dira umea ahalik eta ondoen zaintzen. Izan ere, haiek ezin izan dute seme-alabarik eduki, eta Sole urteetan desio izan duten alabatzat hartu dute. Domeka goizetan, Ivanek goiz samar esnatzen du alaba heldu berria eta inguruko parajeetatik ibiltzen dira. Ivanek ez du apenas barbarik egiten, baina Sole seguru sentitzen da haren ondoan; batzuetan, bere benetako aitaren traza hartzen dio nahiz eta Esteban askoz argalagoa den. Gainera, ez du gogoratzen noiztik ez duen aita ikusi eta haren itxura eta aurpegia ahuldu zaizkio memorian. Carmenek ere horixe esan dio aurreko batean, begiak itxita ere, ez zaiola aitaren aurpegia akordura etortzen. Solek astebetera jakin du Carmen gaixorik dagoela etxean, eta etxean hobeto sendatuko delako usteak apur bat lasaitu du. Berak baino hobeto inork ez daki Carmen aspalditik dagoela gaixo; izan ere, eztulak ez dio apenas uzten soka saltoan jolasten, ibiltzen ere ezin izaten die bere adineko lagunei jarraitu, oso zurbil eta argal dagoela pentsatzen du Solek. Horrez gain, hotza izugarri areagotu da, belardiak eta teilatu-gainak zurituta daude eta ondotxo daki horrek ez diola mesederik egingo. Hobeto egongo da etxean, ohean sendatzen, gogortu bitartean.

Egun batzuetara, Ivan eta Olga ilegorria etorri zaizkio bila eskolara goiz erdian. Biak sartu dira barrura eta irakaslearekin hitz egitera abiatu dira. Haiengana hurbiltzeko keinua egin diote, Ivanek esku sendoa pausatu dio sorbalda gainean, Olgak irribarre behartu bat egin dio eta ohikoa ez den mututasunean irten dira eskolatik, gero bere parean makurtu da, kokotsetik heldu dio eta muxu leun bat eman dio masailean. Egurrezko etxe dotore baten parean gelditu dira, kanpoko atea bultzatu eta barruan sartu dira. Solek ez du inor ezagutzen, baina emakume bat berehala hurbildu zaio eta estu-estu besarkatu du, gero negarrari eman dio. Ivanek, berriz ere jarri dio esku pisutsua sorbalda gainean, eta, Olgak eskutik tiratuta, beste gela batean

sartzen lagundu dio. Han, kirruzko izara zuriz edertutako ohean dago Carmen, bidaian soinean ekarri zuen beroki ilunaz jantzita eta geldi-geldi etzanda. Ivanek lagundu dio ohe hegaleraino, eta arrastoak galdutako atzamar-puntekin Carmeni aurpegia ukitu dio. Carmenen hotza sentitu du atzamarretan eta berehala sartu zaio erraietan. Mutu gelditu da. Solek bilatu ditu Ivanen eta Olgaren begiak, galdetu nahi die zerbait, noiz jakin duten, zer gertatu zaion, zergatik ... baina gaztetxoa izanda ere, ondotoxo ikasi du galdera batzuek ez dutela erantzunik. Ivanek besoetan hartu du, Ivanen besoek ere hitz egiten dakitelako. Negar mantsoan hasi da Sole eta atzamar-puntak igurtzen eta berotzen saiatu da. "Aita, goazen etxera" negar-malkotan eskatu dio Ivani; lehendabiziko aldiz, aita eta etxera.

Eguraldi euritsua tematu da negu hasierako asteetan, ematen du luze jarraituko duela berdin eta ez duela sekula atertuko. Solek eta Lolak eten behar izan dituzte bazkalosteko osterak, baina euren arteko berriketaldiak, ez. Iluntzeak hartzen dituzte kontu kontari jarduteko. Lolari gogaikarria egiten zaio euri xehe eta lanbrotsua, ez dela oraindik ohitu esaten dio Soleri, horixe dela Euskal Herritik gutxien gustatzen zaiona, susmoa duela ez dela inoiz hezetasunera egingo, eguzkia behar duela, bere herriko eguzkiaren indarra eta hark ematen zuen berotasuna ekarriko lituzkeela bertara, geranioak ere erkinduta gelditzen zaizkiola negu luzeetan, itota hilko zaizkiola pentsatzen duela negu guztietan, lore gorri ederrik ez dutela aterako udaberri-uda bitartean ... Lolak, behin baino gehiagotan, luzatzen dizkio Soleri txikitako eta gazte zeneko argazki mordoa, eta banan-banan azaltzen dio nor den bakoitza, zein tokitan atera zuten, zein egunetan eta egun hartako pasadizoren bat. Erretratu gehienetan ama, aita, neba-arrebak, amama eta lehengusu-lehengusina irribarretsuren bat agertzen da Lolaren ondoan. Soleri esaten dio Antonio eta Marina berarekin bizi zirenean ez zituela argazki zaharrak apenas begiratzen, baina orain gero eta gehiagotan erreparatzen dituela album zaharrak, atzamarrak pasatzen dizkiela amaren aurpegiari, aitaren eskuei, amamaren ile zurituari ... Begiak ixten dituenean, batzuetan, argazki zaharren barruan etxekoen ondoan dagoela sentitzen duela, eguzki indartsuak aurpegia argitzen diola eta bero zapak bekokia umeltzen diola.

Solek gustura entzuten ditu Lolaren kontuak, baina berak ez daki zer kontu diezaiokeen. Ez dio esan nahi txikitatik, Lutxanatik alde egin zuenetik, ez duela ezer jakin ez amaz ezta aitaz ere. Garratzegia iruditzen zaio ez jakitea zergatik ez ziren joan haien bila, zergatik ez zitzaion inoiz gutun triste bat heldu, zergatik ez zuen jakin noiz eta non hil ziren gurasoak, zergatik ahaztu zitzairen zelakoak ziren euren aurpegiak, zergatik moldatu behar izan zen leku arrotz batera, zergatik gelditu zen bakarrik, zergatik ikasi behar izan zuen beste guraso batzuk maitatzen eta berea ez zen mundu batean bizimodua eraikitzen. Solek, orduan, ez hain aspaldiko oroitzapenak kontatzen dizkio Lolari: noiz ezagutu zuen Alexander, Nikoren jaiotza eta haurtzaroa, San Petesburgon egiten zuena, hango ohiturak, hango bizimodua, hango hotza eta Nikori eta Alexanderri buruzko hamaika xelebrikeria.

Holakoetan, tristurak hartzen dio gorputz osoa, eta Lutxanara bueltatzeaz damutzen da; batez ere, Lolari gurasoez hitz egiten entzuten dionean, sustrairik gabeko arbola baino ahulago ikusten du bere burua. Erantzun bila etorri da, baina ez du indarrrik gurasoen aztarrenak topatzen egunak emateko, paperak eta agiriak eskatzen ibiltzeko, kanposantuetako harlauzetako izen higatuak irakurtzen ikusmena galtzeko. Urte gehiegi utzi ditu pasatzen, eta, Lutxanara bueltatuta ere, seguru daki galdera batzuek ez dutela erantzunik. Askotan, hainbestetan pentsatu ostean, irudimenak berez sortu dituen gertaerak eta egoerak errepikatzen zaizkio errealitatearen parte izango balira bezala. Askotan, irudikatu ditu aita gerran, ama bakarrik gerra zikin hark iraun bitartean, eta haren osteko miseria

Asun negar batean heldu da etxera. Ondo kostata igo ditu laugarren pisuraino dauden eskailerak. Atea zabaldu du eta hustutasun sendo baten zama ikaragarria sentitu du. Ez dago inor eta ez da inor etorriko. Bakardade hotza sartu zaio etxean apopilo. Umeen logelara abiatu da, bi ateko armairu biluzia parez pare zabaldu du, eta Soleren jertse zahartxo bat esku batean hartu du, eta bestean Carmenen txiki geratutako jaka gorria, eta biekin aurpegi bustia estali du. Atzerrira bidalitako alaben usaina begi, sudur, belarri eta azaleko xularme guztietan antzeman, eta betiko gorde nahiko balu bezala.

Esteban etxean egongo balitz, dena bestelakoa izango litzateke. Berarekin hitz egiteko aukera izango balu, elkarrekin egoteko tartetxo bat edukiko balute, laster dena bukatuko dela entzungo balio, berak idatzitako gutunen bat helduko balitzaio ... Baina badira bost hilabete Estebanen aztarrenik ez duela. Pentsatu nahi du zaila izango dela boligrafoa eta papera inguruan edukitzea, are gehiago une txiki baketsu bat izatea familiari hitz gozoak idazteko, edo bere eguneroko jardun lazgarriaren berri emateko. Ez da erraza izango idatzitako gutunak etxerako bidean jartzea, eta, jartzekotan, zorte hori izatekotan, gutunak bidaltzeari ez dio inork lehentasunik emango. Gerran gaude, eta ez da txepelkeriatan pentsatu behar.

Asunek ondotxo daki Estebanek gustura asko idatziko lizkiokeela egunero, gertatutakoak eta zehatz-mehatz burutik pasatutakoak. Jario bizikoa du senarra, etorri handikoa. Gogoratzen du ezkondu aurretik, soldaduskan zegoela, asteke hiru gutun baino gehiago jasotzen zituela. Oraingoa, baina, ez da gauza bera; sasoi hartakoa baino dezente krudelagoa da. Egunetik egunera malkartsuagoa, zailagoa eta mingarriagoa.

Asunek ez daki bere senarra non dagoen, eta gerran dagoela esateak ez dio ezer argitzen, ez du baretzen. Gerra eremu handia eta sakona dela konturatu da, nahiz eta hizki gutxiko hitza den.

Amesgaizto hau hasi baino lehen, Esteban maisua zen. Maisu errepublikazalea. Emazteari askotan azaltzen zion zergatik defendatzen zuen horren sutsu zorioneko Errepublika. "Ideiak eta idealak behar dira bizitzeko" hori zen politika kontuez aritzen zirenean gehien esaten zuen esaldia. Kultura lau haizeetara zabaltzearen aldekoa zen. Behar-beharrezkoa iruditzen zitzaion

pertsona guztiek irakurtzen eta idazten jakitea, are gehiago, nork bere ideia propioak eraikitzea eta horiek defendatzea: “gure gazteei burua erabiltzen irakatsi behar diegu, Asun”. Horrexegatik, maite zuen bere lana horrenbeste; hezkuntzan aritzeari, irakasteari, zeregin handia eta garrantzitsua zeritzon. Benetako ohorea. Tamalez, gerra hasi zenean, berehala konturatu zen hitzak ez zirela nahiko, arimaz eta eskuez defendatu beharko zutela herritarron askatasuna, eta frentera abiatzea erabaki zuen. Asunek onartu behar izan zuen senarrari beste irtenbiderik ez zitzaiola geratzen, eta, beste asko bezala, noiz itzuliko ziren jakin gabe, joan zen. Estebanek alde egin eta gero, Asuni tokatu zaiona ez da samurragoa izan. Beste emakume asko bezala, etxean geratu da, Lutxanan alaba biekkin. Esteban frentera joan eta gutxira, bion artean ondo kostata aurreztutako diru apurra berehala amaitu zaio, eta Asunek lanean hasi behar izan du. Beheko pisuko Martinak lagundu dio lana topatzen hura ere antzeko egoeran dagoelako eta itsasadarraren beste aldeko etxe handi batean hasi berria delako garbitasunean ardueteko, eta neskame gehiagoren premian daudela esan dio Asuni.

Itsasadarraren beste aldeko etxean ematen du egunaren zatirik handiena. Eguna zabaldu baino lehen, abiatzen dira bera bezalako emakume gazte ilunak alde eguzkitsuan dauden etxe erraldoietara. Asun eta Martina elkarrekin joaten dira etxe berera asteko sei egunetan. Martina jo eta suan ibiltzen da alde batetik bestera etxeko garbitasunean beste bi neskamerekin batera. Asun, ordea, sukalde ondoko gela handi batetik ez da apenas mugitzen; egunero-egunero zain edukitzen ditu izara amaigabeak eta lihozko mahai-oihal pisutsuak lisatuak izateko zain. Sukalde ondoko gela horretan ez dago leihorik, eta ez du ikusten egunaren argia; ez daki zer gertatzen den kanpoan, eta ezin izaten du beste inorekin egin berba. Eguerdian, Martina eta goiko aldean ibiltzen diren neskameak sukaldera jaisten dira mokadu bat jateko. Arin pasatzen zaie tarte hori, baina nahikoa izaten da bakoitzaren bizimoduaren gorabehera txikiak konpartitzeko. Asun konturatu da guztiak daudela antzeko egoeran: senarrak kanpoan dituzte inork ez dakien lekuren batean borrokan, seme-alaba txikiak atzerrira bidali behar izan dituzte hobeto egongo direlakoan, dirurik ez zaie gelditzen eta lan egitea da duten irtenbide bakarra.

Martinari Feliperen gutun bat heldu zaio, eta guztiei irakurri die. Gutun laburra da, ez kezkatzeko esaten dio bere emazteari, gerra ez dela luzea izango, itzuliko direla irabazle eta urak bere bidera bueltatuko direla. Gutuna jaso duenetik, Martina alaiago dago; ordutik, erdi kantuan etortzen da bazkari legea egitera. Feliperen gutuna txiki-txiki tolestuta sostenaren barruan gordetzen du, bere bihotzaren gainean, paper-txatalak bizirik irauteko segurtasuna bermatuko balio bezaleta. Ederra da Martinaren alaitasuna ikustea, baina beste neskame guztiei, ezer esaten ez duten arren, handitu zaie beldurra eta kezka areagotu: “Zergatik ez zait Estebanen gutunik heltzen?” “Non egongo ote da?” “Ez al da zauriturik egongo, ezta?”.

Egunak bata bestearen atzetik doaz. Egun guzti-guztiak plantxaketan ematen ditu, beste batzuen izara, oihal, alkandora eta azpikogona zuri ederrak dotore jartzen. Beroaren beroaz eskuetako azala sikatu, eta aurpegia goizegi zimurtzen hasi zaio. Azaleko penazko zimurrak ezin ditu kendu, ez baitago plantxarik horiek lisatuko dituenik.

Pilarrri eta Rositari ere senarren gutunak heldu zaizkie. Gerra-kontuak ez ei doaz Martinaren gizonak dioen bezala, ezin omen dute aurrera egin, zauritu eta baja asko dagoelako haien gudarostean, baina euren emazteek, behintzat, badakite bizirik daudela eta oraindik ez daudela zauriturik. Asunek nabaritzen du barruko kezka adarrak ugaltzen dituela, bere erraiak estutu eta arnasa ito nahian, ez du uste normala denik besteen gizonak idaztea eta Estebanek ez. Gero eta gehiagotan hasi da beltz koloreko pentsamenduak edukitzen. Orduan, Carmen eta Sole etortzen zaizkio burura “gutxienez, haiek nire ondoan edukiko banitu ...”.

Solek txikitako koaderno zahar eta erdi birrindu bat erakutsi dio Lolari. Bertan Lolak ezagutzen ez dituen letrak daude eta Solek irakurri dizkio esaldi batzuk. Arratsalde horretan barrezka ibili dira, koadernoko orri marroixkarak atzera eta aurrera pasatzen. Lolak goraiatu ditu txukuntasuna eta ordena, marrazkietarako trebetasuna eta letrakeraren armonia. Solek kontatzen dio zenbat kostatu zitzaion hizkuntza berrian mintzatzeko hastea, oso gutxi hitz egiten zuela, ez hango gurasoekin ezta eskolako beste kideekin ere. Iruditzen zitzaion ez zuela merezi izango hizketa berri hori ikastea gurasoek laster baten eramango zutelako berriz ere etxera, Lutxanako etxera.

Koadernoaren azken aurreko orrian, itsasontzi erraldoi batetik irteten gizon argal bat eta beltzez jantzitako emakume bat agertzen dira marraztuta. Eguzki ederra dago zeruan eta hodeiren arrastorik ez. Itsaso bare eta urdin-urdina. Beste inor ez dago inguruan. Gizona eta emakumea oso irribarretsu daude; pozik, azkenik, alabaren bila doazelako. Behin eta berriro errepikatzen zuela marrazki bera esan dio Lolari, eta koaderno guztietan uzten zuela azken orria hutsik Lutxanan egonda nahi zituelako koadernoak bukatu. Ondo pentsatuta zuela zein izango zen azken orrietako marrazkia, baina ezin izan zuela bakar bat ere osatu.

Ordura arte Lolak ez dio inoiz gerraz hitz egin Soleri. Berak gogoratzen dituenak gurasoek kontatzen zizkietenak dira: alde bietako gizon gazte asko hil ziren, haien gorputzak metatuta lurperatzen omen zituzten, askotan familiek ez zuten euren heriotzen adierazpenik jasotzen, esperoan bizi izan ziren urte luzeetan amak, emazteak eta alabak. Horren harira Lolak kontatu dio bere auzoko emakume batek arratsaldero-arratsaldero, negu zein uda, aulki bat ateratzen zuela etxe ondoko atera eta gerrara joandako semearen zain egon zela hil zen egunera arte; etxeetan miseriaren gorritasuna gero eta biziagoa zen bitartean. Gerra gogorra eta krudela izan zela, baina gerra ondorengo ere ezpal berekoa izan zela.

Gauean, Solek berak idatzi du ez amak ez aitak inoiz idatzi ez zioten gutuna. Urteetan espero izan duen hori. Bertan, aitaren gerraren kontrako adierazpen sutsuak egongo dira, gerraren pasarte lazgarriak baita hunkigarri askoak ere. Amaren negar malkoak sikatuta agertuko dira arrasto txikietan, alaba biak joaten utzi zituen egunekoak, itsasadarren beste aldeko etxeke lanak eta nekeak kontatuko dizkie alabei, ez dakitelako haietako bat urruti hartan hil denik.

Muxuak egongo dira papera biguntzen eta gutxi barru joango gara zuen bila askotan errepikatuta, eta maite zaituztegu azpimarratuta, eta laster hitza gutunean sakabanatuta. Gauero irakurri ahal izango du, bizia salbatuko dion otoitz bat bezala eta ez zaio berriro burutik pasatuko lurralde hotz hartan gurasoek alaba ahaztu edo galdu zutenik. Guda madarikatuari egotziko dio errua; gerra krudeltasunaren sinonimo garbia delako.

Denborak dena aldatu du. Nikoren haserrea ere bigundu da; dagoeneko, normaltasunez hitz egiten dio amari, eguneroko txikikeriez mintzatzen dira, elkarri ezer leporatzeko asmorik gabe. Ez zaio egin erraza amak herrira bueltatu behar zuela onartzea, baina haren baitan amaren herria ezagutzeko kirria sortu zaio, ama nahi duelako ikusi bere sorterrian, aspaldi zegokion lekuan; frogatu nahi du ama badagoela esaten dion bezain zoriontsu eta telefonoz adierazten dion guztia errealtatea dela.

Denborak dena aldatu du. Sole bera ere aldatu da, urteek eta bizi izandakoek malgutzen lagundu diotelako, baina batez ere itzultzeak aldatu du. Atzamar-puntak gustura igurtzi ditu. Dagoeneko, ez dauka mingostasunik, ezta baten bati kontu eske jarduteko premiarik ere, kosta ere kosta egin zaio onartzea, baina bere istorioan ez dago gaizkilerik, ez dago errudunik. Azkenik, bake-hitzarmena sinatu du bere iraganarekin; eta horregatik, gurasoek idatzita egotea nahiko lukeen gutuna zati txikietan tolestuko du, eta sostenaren barruko partean sartuko du, bihotzaren taupadak igartzen diren lekuan, eta, akaso, Lolari irakurriko dio arratsalde euritsuren batean.